


Bergarako astekaria

# Berrigara



## Asteburua lagunekin

Jardunek antolatutako aisialdiko ekintzak

Ze itxura dauka etorkizunak?

MECA BERGARA

Amillaga 5 BERGARA TEL. 943 76 40 68



# Jubilatu eta pentsionisten aldeko kanpaina.

Urrian eta azaroan.


betaurreko

## Graduatuak

Manso Optikan, adin eta gustu guztietarako betaurrekoak ditugu.

Zatoz ikustera, oso erraz hartuko duzu erabakia.

1.745 modelo baino gehiago




Prezio honetatik aurrera

**7.900** PTA

lente


## Progresiboak

...URRUTITIK



*Ondo ikusteko*

...ETA GERTUTIK



**INDO**  
VISUAL  
SATISFACTION

HD INDO lente progresiboak bista nekatu edo presbiziarendako **betirako soluzioa** dira.

Goza ezazu Ikusmen ezin hobez **distantzia guztietara**, irudi-saltorik gabe.

**Zure begietara moldatzen ez badira, bueltatu egingo dizugu dirua.**

Orain, urrutitik ere pentsatuko ez zenukeen prezioan.

Prezio honetatik aurrera

**19.900** PTA



**P. MANSO**  
Optika

Irizar 2 BERGARA  
Telefona: 943 76 27 81



## Pakea ekarri gatazkara

Tomasa Zabaleta / Jubilatua

Urriaren 14tik hil amaierara arte, hirugarren urtez, Antzuola eta Bergarako jubilatuen elkarteek herri osoari eskainitako Kultura Hamabostaldia izango dugu.

Urtez urte goiburu bat aukeratu izan dugu Hamabostaldiaren mezu nagusia definitzeko eta goiburu horrekin Kartel Lehiaketa baterako deia egin genuen egitarau-txartelaren azala aukeratzeko.

Hauek izan dira orain arteko bi urteetan izan ditugun goiburuak: 1997an, "Nola pasa erretiratu izatetik gizartean presente egotera"; iaz, "Beti eman daiteke urrats bat aurrerago". Aurten, berriz, hauxe da: "Pakea ekarri gatazkara".

Jubilatu elkartearen jomuga da "erretiratu izatetik gizartean presente egotera pasatzea". Uste dugu bizitzako aldi bakoitzean pertsonak eta gizarte taldeek badutela gizarteari eskaintzeko berariazko zerbituak eta edadetuok bereziki eskain dezakeguna esperientzia dela. Esperientziak bizitza beste ikuspegi batez ikusteko aukera ematen digu, garrantzitsua dena eta itxurazkoa dena bereizten laguntzen digu eta bizitzako gertakariak errealismo eta baretasun handiagoz hartzen.

Denok ditugu gatazka esperientziak, bai persona mailan, bai familian eta bai-

ta gizartean ere. Dudarik gabe, behin edo behin izango genuen gatazkak gainditu nahian urkoa garaitzeko edo gure arazoak eta interesak bereen aurrean gailen ateratzeko gogoia. Baina izango dugu bestelako esperientziarik ere, erakutsiko digutenak gatazken konponbidea ez datorrela bestea garaitzetik eta bai bestearen arazoak ulertzetik eta bakoitzak bere nahietan zerbaitetan amore ematetik. Azken batean, konturatuko gara beharrezko dela bakoitzak zertxobait galtzea funtsezkoena salbatzeko bai bikoteen arteko harremanetan, bai belau-naldien artekoetan, bai gizarte-bizitzan, eta abar.

Ikuspuntu eta interes desberdinak izateak beti emango dute gatazkarako bi-

*"Gatazkak berak gaina hartu gabe, gatazkarekin bizitzen ikastean eta gatazkok bide zuzenetik eramaten jakitean dago pakea eraikitze gakoetako bat"*

dea, bereziki une honetan bezala aldaketa handiak somatzen direnean.

Gatazkak berak gaina hartu gabe, gatazkarekin bizitzen ikastean eta gatazkok bide zuzenetik eramaten jakitean dago pakea eraikitze gakoetako bat.

Gure herria pake-bideen bila ari da une honetan. Pentsa dezakegu politikoei dagokien kontua dela eta herritarrok ez dugula egiteko horretan zer eskainirik. Baina, beharbada, pentsatu beharko genuke benetako pakeak akordio politiko eta marko juridiko berriez gain, gizakiok jarrera eta balore paketzaillean hezitzea ere eskatzen duela eta lan hori herritar eta gizarte elkarte guztioi dagokigula eta horrek era askotako ekimenak abian jarzea eskatuko duela.

Asmo hori du Kultura Hamabostaldi honek ere, eta gatazketara pakea ekartzeko baldintza eta moduei buruzko gogoeta egiteko aukera bat eskaini nahi du.

Gaia kristauaren ikuspegitik, kultura-munduaren ikuspegitik eta ikuspegi soziopolitikotik aztertuko dute horretan adituak diren pertsonak.

Lerro hauek aprobetxatuz, bergarar eta antzuolar guztiak gonbidatu nahi ditut antolatatu ditugun ekitaldietan parte hartzeko.<

■ barruan



**Jesus M. Zamora**

Realeko teknikoa

*"Azpiko kategorietan zenbat eta hobeto lan egin, aberasgarriago Realarentzat"*

23.



**Alex Ugalde**

Komikilaria

*"Inguruan ikusten dudanari buruzko komikiak egiten ditut, umore beltza erabiliz"*

27.



**Javier Bizarro**

Novedadeseko proiektionista

*"Zine europearra gustatzen jat gehixen, interesgarriagua eta intelektualaguda"*

29.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1969ko urria.** Hogeita hamar urte bete dira aurtan Pol-Poleko *Gaztetxo* taldea sortu zenetik. 1969-70 ikasturte hartan 10 eta 14 urte bitarteko 210 gaztetxok (140 mutil eta 70 neska) eman zuten izena eta laguntzaile eta antolatzaile lanetan 45 gaztek eta beste hainbat nagusik jardun zuten.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1200.** Urriaren 8an Gipuzkoak Gaztelarekin bat egin zuen.  
**1789.** Urriaren 8an Frantziako Gobernu iraultzaileak Nafarroako errege titulua deuseztatu zuen.  
**1919.** Urriaren 7an Euskaltzaindiak lehen batzarra egin zuen Donostian.

### MUNDUAN GERTATUA

**1995.** Urriaren 3an Miguel Indurainek erlojuaren kontrako Munduko txirindularitza txapelketa irabazi zuen Kolonbian, Abraham Olanok zilarrezko domina lortu zuen.

## zozketak

### BONO LOTO

**Eguakitza 1**  
13-14-21-24-32-48 (osag.43/itz.6)  
**Astelehena 4**  
1-2-17-18-25-48 (osag.19/itz.6)  
**Martitzena 5**  
11-13-22-24-31-46 (osag.49/itz.3)  
**Eguaztena 6**  
17-23-26-28-33-39 (osag.45/itz.5)

### PRIMITIVA

**Zapatua 2**  
10-16-29-30-32-41 (osag.19/itz.6)  
**Domeka 3 Saritzarra**  
12-20-21-24-33-35 (osag.8/itz.4)

### ONCE

**Eguakitza 1:** 71.882 (196 seriea)  
**Astelehena 4:** 24.101  
**Martitzena 5:** 26.652  
**Eguaztena 6:** 27.852

## Eguraldia

*Igeldoko meteorologi behatokia*



Eguraldi eguzkitsua izango dugu asteburu osoan zehar. Goiz partean behelainoa izango da, baina eguerdirako urdinkueak nagusituko dira. Temperaturak gora egingo du eta haizeak ekialdetik eta iparrekialdetik joko du arin.

## Ilargiaren aldiak



Ilbehera: urriak 2



Ilberri: urriak 9



Ilgora: urriak 17



Ilbete: urriak 24

## Eguzkia

*Domeka, urriak 10*



Sortu: 08:22



Gorde: 19:44

## Temperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 30</b>	20	14	0,8
<b>Eguakitza 1</b>	21	13	-
<b>Zapatua 2</b>	25	11	1,2
<b>Domeka 3</b>	17	12	2,4
<b>Astelehena 4</b>	16	9	4,3
<b>Martitzena 5</b>	20	10	-
<b>Eguaztena 6</b>	19	4	-

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

### Atze-mardo egon

Ezer egin gabe egon.  
 Egonean egon.  
 Ipurtaundi egon.

- Zuek egon atze-mardo, lanak berez eingo dielakuan.



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Salbamendua errazteko

Itsasuntzi-istripuetan ahalik eta pertsona gehien bizirik eta onik atera dadin, RFD konpainia irlandarrak unti bereziak sortu ditu, Marin-Ark izeneko untiak hain zuzen. Marin-Ark unti batek 430 lagunendako lekua du eta itsasuntzian erraz asko eraman daiteke, ez du eta ia lekurik kentzen. Baina, gainera, 90 segundu besterik ez du behar puzteko.

## Farmaziak

### Eguakitza 8:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

### Zapatua 9:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

### Domeka 10:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

### Astelehena 11:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

### Martitzena 12:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Eguaztena 13:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

### Eguena 14:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

## Ogia

**Domeka 10:** Ogizun.

**Domeka 12:** Konde.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 55
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdik	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 08
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 40
Pakea	943 76 13 40
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 23
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 58
RENFE	943 28 35 66

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 23
Igerilekuak	943 76 20 53
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 03
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 00


### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 52
Erregistroa	943 76 13 16
Jardun	943 76 26 47
Jubilatuaren Etxea	943 76 27 40
Postetxea	943 76 26 66

## zorion agurrak



**Jabier Centeno eta Irene Vila**  
Urriaren 8an  
11 urte ezkondu zirela.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Anselmo Gomez**  
Urriaren 10ean  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Andoni Gomez**  
Urriaren 11n  
11 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Eider de la Roza**  
Urriaren 8an  
11 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Uxue Arregi**  
Urriaren 10an  
13 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Andoni Arruabarrena**  
12an 8 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



**Miren Arruabarrena**  
12an 8 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



**Maria Cid**  
Urriaren 8an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Leire Altube**  
Urriaren 8an  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Eneko Cruz**  
Urriaren 10ean  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta anaia.



**Fernan Jauregi**  
Urriaren 9an  
39 urte.  
Urte askotarako!  
Auskalo...



**Igor Etxeberria**  
Urriaren 9an  
21 urte.  
Urte askotarako!  
Leire.



**Leire Mellado**  
Urriaren 8an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Asier.



**Arantza Jauregi**  
Urriaren 11n  
40 urte.  
Urte askotarako!  
Lagun bat.



**Pili Hernandez**  
Urriaren 8an  
berrogeita...  
Urte askotarako!  
Hodei eta Aitzol.



**Jokin Narbaiza**  
Urriaren 9an  
3 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak, Felix, Jone eta Itziar.



**Maialen Lopez**  
Urriaren 9an  
10 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta Tia Mana.



**Maite Azkargorta**  
Urriaren 11n  
38 urte.  
Urte askotarako!  
Lagun bat.



**Lorea Garate**  
Urriaren 10ean  
16 urte.  
Urte askotarako!  
Andoni eta Ariane.



**Arantza Iraegi**  
Urriaren 13an  
38 urte. Urte askotarako!  
Olaia, Aitor, Hodei eta Aitzol.



**Olaia Zengotitabengoa**  
Urriaren 9an  
9 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Julen Markez**  
Urriaren 13an  
5 urte. Urte askotarako!  
Gorka, Elisa eta Mikel.



**Arritxu Barruso**  
11n 17 urte. Zela hazi haiz neska!  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Julen Unzueta**  
Urriaren 14an  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Miren Arrazola**  
Urriaren 11n  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

### ESKER ONA

## Isabel Bermejo Casero

Osintxun hil zen  
1999ko irailaren 22an,  
88 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Margarita Ostiz Albisua Ramon Mujikaren alarguna

Bergaran hil zen  
1999ko urriaren 1ean,  
85 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

### hildakoak

**BERGARA**  
**Margarita Ostiz Albisua**  
Urriak 1, 85 urte  
**Pilar Berraondo Zeberio**  
Urriak 1, 79 urte  
**Antonio Garcia Salazar**  
Urriak 4, 78 urte

### mezak

**Santa Marina**  
Domekak: 11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
Lanegunak: 19:30.  
**San Pedro**  
Domekak: 09:30, 12:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.  
Domekak: 11:45.  
**Osintxu**  
Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.  
**Elosu**  
Domekak: 10:00.  
**Ubera**  
Domekak: 10:30.  
**San Juan**  
Domekak: 11:00.  
**Basalgo**  
Domekak: 13:00.  
**San Prudentzio**  
Domekak: 10:30.  
**Labegaraieta**  
Domekak: 11:00.

**San Lorentzo**  
Zapatuak: 20:00.  
**Angiozar**  
Domekak: 10:30.  
Eguakitza: 19:00.  
**Monja Zaharrak**  
Domekak: 19:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.  
**Mizpirualde**  
Domekak: 11:45.  
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.  
**Mariaren Lagundia**  
Domekak: 10:00.  
Zapatuak eta lanegunak: 09:00.  
**Antzuola**  
Domekak: 09:00, 11:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.  
**Uzarraga**  
Domeka: 10:00.

### jaiotakoak

**BERGARA**  
**Elene Esnaola Albeniz**  
Irailak 25  
**Garazi Marzo Garate**  
Irailak 26  
**Iñigo Agirre Garitano**  
Irailak 27

*Datorren asteko alean,  
**URRI**aren 15a eta 21a  
bitartekoen zorion agurrak  
argitaratuko ditugu.*

## ANTZERKIA

► **"El caserio"** zarzuela datorren domekan, hilak 17, 19:30etan Arrasateko Amaia antzokian. Sarrerak (2.000 pezeta) Barrenkaleko Onena tindategian salgai.

## MUSIKA

► **In-flames, Dark tranquility, Children of bodom eta Arch enemy** taldeak bihar, zapatua, 20:30etan Jam aretoan. Domekan, 20:30etan, **Fugazi, Half foot out side eta Lisabö** taldeen kontzertua izango da.

## ERAKUSKETAK

► **Josean Santorcuatoren plumilla** erakusketa Nahikarin.

► **San Joxepe** elkartearen Kultur Hamabostaldiaren inguruan antolatutako kartel lehiaketako lanak eta eskulanak Kultur Etxean ikusgai, martitzenera arte.

► **Ramon Aranzabalen margoak** Arrasateko Harresi aretoan (Iturriotz, 35) urriaren 24ra arte.

► **Unicef** erakundeak antolatutako argazki erakusketa Udaletxean domekara arte.

► **Oihana Insausti eta Iker Valleren margoak** Antzuolako Surpe tabernan.

## ANTZERKIA

### 666

**Non:** Novedades aretoan.

**Noiz:** bihar, zapatua, 22:30etan.

**Sarrerak:** 1.000 pezeta. 750 pezeta langabetu eta 25 urtetik beherakoentzat.

Yllana antzerki talde madrildarrak eskulako arrakasta lortu du "666" bere hirugarren lanarekin. Taldea 1991n sortu zen eta denbora honetan "¡Muuu!" (zezenketen inguruko parodia), "Glub glub" (jitoan zihozzen itsasgizon batzuei buruzkoa) eta azkeneko hau antzeztu dituzte. Hitzik gabeko antzerki komiko bisuala lantzen dutenez, euren lanak munduan zehar aurkezteko aukera izan dute eta Frantzia, Alemania edo Japoneko ikusleek harrera ezinhobea egin diete.

Tituluak errito satanikoei erreferentzia egiten badie ere, "666" antzezlanean aurkezten zaigun istorioa bestelakoa da: lau preso (Juan F. Ramos, Joe O'Curneen, Raul Cano eta Fidel Fernandez aktoreak) heriotz zigorra jasotzeko zain dira eta, bien bitartean, ikuslea beraien arteko konbibentziaren, euren zaindarekin duten harremanaren edota egingo zaien ejekuzio penagarrien lekuko izango da. Umore beltza nagusi da lan honetan eta aktoreek euren maisutasuna erakusten dute keinuekin eta hizkuntza primario bat erabiliz

ikusleen barreak sortzerako orduan. Destakatzekoak dira, besteak beste, tiroen sekuentzia (kamera geldiko irudien antzera landuta), musikaz lagundutako ametsen pasarteak, apaiz baten presentzian burutzen diren exekuzioena edota amaierako sorpresa, kartzela infernua bihurtzen denekoa. Komiko hauen erreferentziak zinean eta telebistan aurki ditzakegu eta, estilo aldetik, El tricycle taldearen antza daukate. Hala ere, madrildarrak eskatologia eta biolentziarekin ausartzen dira, kataluniarren pareko grazia eta gusto ona erakutsiz.



"666" antzezlanean irudi bat.

## LEHIAKETAK

► **Jokin Zaitegi XIII. Itzulpen Laburren Sariketa.** Lanak jasotzeko epea urriaren 29an bukatuko da. Argibide gehiago Arrasateko AED elkartean, 943 77 12 28 zenbakian.

► **XXII. Euskal Zinema eta Bideo Bilera** abenduaren 3an eta 4an Lekeition. Pelikulek 8 eta Super 8 formatoan eginak izan beharko dute. Lanak aurkezteko epea urriaren 24an bukatuko da. 94 684 12 21.

► **Komiki ez sexisten**

► **Donostiako hirugarren lehiaketa,** Donostiako Udaleko Emakumearen bulegoak antolatuta. Lanak azaroaren 26ra arte jasoko dira Emakumearen bulegoan (Urdaneta 13, 3.a. 20006 Donostia).

► **Euskal esakera barrien**

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

**Txikiak**  
ume eta gazteen oinetakoak

Otalora lizentziatua 21.

Tf. 943 79 44 70.

**Arrasate**

**lehiaketa.** Esakerak aurkezteko epea, azaroaren amaierara arte. Argibide gehiago Bermeoko Udal Euskara Zerbitzuan, 94 617 91 32.

## IKASTAROKAK

► **Pintura ikastaroa** (hasiera eta hobekuntza mailak) Bearteko lokalean eguaztenetik aurrera. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. Argibideak: 656 72 44 49.

► **Moises Aspiazu** dantza taldeak helduei zuzendutako fandango eta arin-arin ikastaroko klaseak (hasiera eta hobekuntza mailak) zapatu goizetan izango dira, 11:00etatik 12:30etara. 943 76 15 40.

## DEIAK

► **Ehk deitutako manifestazioa** martitzenean, hilak 12, 12:30etan Intxaurren, "Espainiar indar okupatzaileak alde hemendik" lemapean. Autobusak 11:00etan aterako dira Frontoitik. Izen-ematea Arranon.

► **Hitzaldia: "Osintxu eta bertako ohiturak"**. Hizlaria: Imanol Sorondo. Eguenean, hilak 14, 19:30etan Osintxuko liburutegian.

► **EAJ.** Eguenean, hilak 14, ez ohizko Uri Batzarra izango da 20:00etan Batzokian. Alderdikide guztiei batzarrera joateko dei egiten zaie.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, urriak 13, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Raul Luqueren aldeko moda desfilea** urriaren 17an Jam aretoan. Sarrerak Deportivo, Ariznoa eta Ganbara tabernetan salgai.

## OHARRAK

► **Bergarako Helduen Heziketa** Iraunkorreko ikastetxean (HHI-EPA) matrikula epea irekita. Irakaskuntza ofiziala eta doanekoa. 943 76 44 52.

## JAIK

► **Nafarroa Oinez** domekan, hilak 17, Iruñian. Autobusen txartelak (1.200 PTA) Aranzadin eta Jardunen. Irteera: 08:00etan Beheko Estazioan.

► **Elosuko Mendi Feria** martitzenean, hilak 12, egun osoan zehar.

## KINTADAK

► **1951n jaiotakoen afaria** zapatuan, hilak 9, Antxonin, 21:00etan. Izen-ematea (1.500 pezetako depositoa) bertan.

► **1933an jaiotakoen eguna** urriaren 17an. Goizean hildakoen oroimenezko meza izango da eta ondoren bazkaria Antxonin. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Antxonin edo Intxorta tabernetan.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### Wild wild west

Eguakitza: 22:30.

Domeka: 17:00.

Martitzena: 17:00.

##### El secreto de Thomas Crown

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 22:30.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30.

##### El rey de las mascararas

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### Wild wild west

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

##### Alguien como tu

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena: 17:00, 19:30, 22:00.

Eguaztena: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### American pie

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 19:30, 22:15.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:30.

Martitzena: 19:30, 22:30.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

##### El inspector Gadget

Zapatu, domeka eta

martitzena: 17:00.

#### EIBAR. Rialto

##### Eyes wide shut

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 16:45, 19:45, 22:30.

Domeka: 16:45, 19:45, 22:30.

Astelehena: 19:30, 22:30.

Martitzena: 16:45, 19:45, 22:30.

#### ELORRIO. Arriola

##### La amenaza fantasma

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Martitzena: 20:00.

##### Manolito Gafotas

Domeka: 17:00.

##### El maestro de marionetas

Eguena, zine-kluba: 20:15.

### WILD WILD WEST

**Zuzendaria:** Barry Sonnenfeld.

**Aktoreak:** Will Smith,

Kevin Kline.

*El principe de Bel Air* telesailak ezagutzera eman zuen mundu osoan Will Smith aktorea. Zinean ere arrakasta handia lortu zuen *Men in black* filmearekin. Barry Sonnenfeldek efektu bereziz jositako western-komedia errodatu du *printzearekin*. Berearekin, Kevin Kline aktorea (*Un pez llamado Wanda*) izango da Kalifornia aldean abenturan murgildurik.

### EL SECRETO DE THOMAS...

**Zuzendaria:** John Mc Tiernan.

**Aktoreak:** Pierce Brosnan,

Rene Russo, Denis Leary.

*Thomas Crown* (Pierce Brosnan) guztiz aberatsa da baina bere bizitzari emozio pitin bat falta zaio. Badirudi New Yorkeko museo batean izan den lapurretaren egilea bera izan dela. Hala uste du behintzat *Catherine Banning* (Rene Russo) ikertzaileak...

### EL REY DE LAS MASCARAS

**Zuzendaria:** Wu Tianming.

**Aktoreak:** Chu Yuk, Chao Yim Yin.

Mende honen hasierako Txinan girotuta, maskaren erregea kale antzerkiko aktorea dugu. Bere emazteak laga egun zuen eta bere seme bakarra aspaldi hil zitzaion. Gizon bakartia da eta, tradizioarekin jarraitu ahal izateko, bere maskarak jasoko litzuzkeen oinordekoa botatzen du fal-tan.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.



**Sukaldeak.**  
**Horma armairuak.**  
**Neurrira egindako**  
**altzariak.**  
**Ateak eta leihoak.**  
**Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86



**Gaspar**

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

**Kultur Etxeko aretoa txiki geratu zen eguaztenean Jardunek antolatutako "Euskara eta Euskal Herria Aragoan" izenburuko hitzaldia jarraitzeko. Fernando Escuerrek eta Gartzzen Lakastak historian zehar euskarak Aragoi Garaian izan duen presentziari buruzko datuak eman zituzten.**

**G.** Noiztik Aragoiko euskal toponimoak aztertzen?

**E.** Bilbon bizi arren, Yebrakoa naiz, Sabinanigotik gertu dagoen herri batekoa. Gaztetan, *auto-stop* egiten, euskararekiko interesa piztu zidaten Arratiako senar-emazte batzuk ezagutu nituen eta harrezkero oso harreman estua izan dut berriekin. Euskara ikasteari ekin nionean hitz asko ezagunak zitzaizkidala konturatu nintzen, nire herriaren inguruan euskarazko toponimo asko dagoelako hain zuzen. Koldo Mitxelenak berak esan zuenez, erreza goa da frogatzea Aragoi Garaian euskara hitzegiten zela Enkarterrietan baino. Toponimo askok euskarazko jatorria daukate: arriaga, escuer, larres, aierbe, larramendia..., etabar. Anso eta Echora hurbiltzean, toponimoak gero eta argiagoak dira: zuriza, oza, ainsa... Nire herrian oraindik ere burniar esaten dute, udazkenari agerro esaten zaio, gorrillonnes delakoak fruitu gorri batzuk dira, bizkarrera teiltuko piezarik altuena... Eta gazteleratutako hitzak ere badira; hamarretakoa esateko *echar las diez* esaten da.


**G.** Noiz hasten da galtzen euskaren presentzia?

**E.** Erromanizazioarekin, eta horretan Santiagorako ibilbideak berak (Jacatik eta Nafarroatik igarotzen dena), elizak (erromatar erritua ezartzean) edota monarkiek

## GARTZEN LAKASTA

Filologoa

*"Kultura ofizialak ez du interesik euskarak Aragoan izan duen presentzia onartzeko"*



Gartzzen Lakastak alemaniera klaseak ematen ditu Bilbon.

ere laguntzen dute. Kultura den guztia latinez dator eta euskara zaharkitua geratzen da. Ondorioz, euskarak zonalde menditsuetara, kultura gutxiagoko tokietara atzera egin zuen. Artzaiak eta urrun ziren herrietako biztanleak lirake euskarari eutsi zioten azkenak.

**G.** Zergatik ez da gaia gehiago aztertu?

**"Herri eta ibaien euskal izenak geratzen zaizkigu eta izenok ez ditu haizeak ekarri, euskaraz mintzotzen jendeak bataiatu ditu"**

**E.** Toponimiak, datu historikoez, erlijioak eta kulturak argi uzten dute Euskal Herria eta Aragoi artean hartu eman handia zegoela. Irúnea eta Jaca hiriburu baskoiek ziren eta baskoien errejioa Gallego ibairaino heltzen zen XVI. mendean (aurretik urrunago ere bai). Herri eta ibaien euskal izenak geratzen zaizkigu eta izen horiek ez ditu haizeak ekarri, euskaraz hitzegiten zuen jendeak bataiatu ditu. Jendeak ez du hori ezagutzen eta historiagile ofizialek, euskararen eragina ezeztatzearen, arabiar edo zeltiar kutsua topatzen diete izen horiei. Kultura ofizialak ez du inolako interesik euskararen presentzia onartzeko eta errezelo handiz ikusten da hori. Historia aztertzen joaten den heinean, gauzak argituz joango dira, gero eta jende gehiagok egiten baitie erreferentzia euskal toponimoei.

**G.** Bergarari buruzko 1053. urteko erreferentzia bat aipatu duzu hitzaldian.

**E.** Dokumentu historikotik batean Bergara aipatzen den lehenbiziko aldia izan daiteke. San Juan de la Peña monastegia oso zentru kultural ospetsua izan zen eta herritarrek elizari zerbait eman nahi ziotenean bertara jotzen zuten. 1053. urteko idatzi batean zera jasotzen da: *"Sancho, hermano del monje Ziano/Ziana (bergararra izan zitekeena), da a San Juan de la Peña un monasterio llamado de Arizeta, que esta bajo la advocacion de San Miguel sito en Bergara, asi como una villa denominada Paterniti"*. Salamanca edo Madrilerara zuzendu beharrean, propietateak San Juan de la Peñari ematean, horrek ere Euskal Herria eta Aragoiaren arteko lotura frogatzen du.<



# 9443

## .....Berrigara Gida 2000


Berrigara Gida 2000, Bergara eta Antzuolako telefonoen gida prestazen dihardugu.

**Ainhoa Altuna** (argazkian) arituko da komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko ditu.

Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 2000 liburutxoak:

**Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

lazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke: **943 76 03 97**.



**Berrigara**

# Soraluze-Maltzaga autopista zatia azaroan hasiko dira egiten

## 9.025 milioi pezetan adjudikatu ditu lanak Diputazioak

**Eibar-Gasteiz autopistaren Soraluze eta Maltzaga arteko 2,5 kilometroko zatia 9.025 milioi pezetan adjudikatu zuen joan zen martitzenean Gipuzkoako diputatuaren batzarrak.**

Moyua, Murias, Galdiano eta Altuna y Uria aldi baterako enpresa batasunari adjudikatu zaizkio lanak. Esan behar da obraren aurrekontua 11.324 milioi pezetakoa dela eta gehienezko obra epea, bestalde, 42 hilabetekoa, baina 9.025 milioi pezetan adjudikatu denez, Gipuzkoako Diputazioak 2.300 milioi pezeta aurreztu ditu. Bergara eta Maltzaga arteko zatiaren bigarren fase honen obrak urtea amaitu baino lehen hastea espero dute eta 36 hilabeteko epean lanak amaitzeko konpromisoa hartu dute obra egingo duten enpresek.

Sagarrekatik Maltzaga arteko 2,5 kilometroko zatian, 700 metroko Eitzako tunela eta 200 metroko beste lau tunel eraikiko dira. Azken lau tunel hauek Maltzaga inguruan eraikiko di-



Bergaran egiten ari diren lurren mugimenduak direla eta, Udalak dio enpresa eraikitzailea ez dela legea betetzen ari.

ra, A-1 eta A-8 (Bilbo-Behobia) autopistak lotzeko eraikiko diren lotuneetarako.

Bestalde, Sagarrekan 140 metroko biadukto egingo da eta 480 metroko beste biadukto bat, Deba ibaia zeharkatuko duena, Larreategin (Soraluze). Horretaz gain, Maltzagan bi autopisten, hau da, A-1 eta A-8 autopisten arteko lotunea egiteko, beste 6 biadukto eraikiko dira.

### ISTRIPUA BELASTEGI BOLU INGURUAN

Jakingo duzuen bezala, joan zen ekainean hasi ziren Eibar eta Gasteiz lotuko dituen A-1 autopista eraikitze-lanak. Bergara hegoaldea eta Soraluzeko Sagarreka arteko zatia egiten hasi dira lehenengo. Jo eta ke ari dira lanean une honetan Basalgo auzoan. Kamioiek gora eta behera etengabe dihardute, lurak alde bate-

tik bestera garraiatzen. Bestalde, esan behar da, hil honetan hasiko direla zulatzen autopistaren lehen zati honetako bi tunelak: Lezarrakoa eta Gallastegikoa.

Mekolaldetik Gallastegidorre baserriaren arteko bidean gora eta behera dabil-tzan kamoi-hormigonerretako bat irauli eta erreka zulo-ra jausi zen Belastegi Boluan martitzenean. Bidea oso estua da eta kamioi asko dabil-



Oihal batek aldatzen du dena

**BERGARA**

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

inguruan. Istripuaren ondorioz ez zen zauritutakorik gertatu, baina bertako base-rietakoez eta inguruan pasiatzen ibiltzen direnek BERRIGARARI aitortu diotenez, kamioiek darabilten abiadarekin oso arriskutsua da bide horretatik ibiltzea. Kamioia errekatik ateratzeko grua bat ekarri zuten eta bideetik gora zihoala hau ere erreka ertzean kateatuta geratu zen, ez atzera ez aurrera. Bidea moztuta geratu zen eta eguaztenara arte ez zuten zabaldu.

**BERGARA-MALTZAGA 2002. URTERAKO**


Bergara eta Maltzaga arteko 8 kilometroko zatia 2002. urterako amaituta egotea da asmoa eta autopista osoa, berriz, 2004. urterako zabalik egotea aurreikusita dute erakunde publikoek. Bergara hegoaldea-Soraluze zatia- ren lanak 9.833 milioi pezetan adjudikatu zitzaizkion martxoan, Soraluzetik Maltzagarainoko zatia egingo duen aldi baterako enpresa batasun berari.

**ISURKETA ILEGALA**


Autopistaren kontuarekin gabiltzanez,

esan dezagun, Bergarako Udalak bi salaketa jarri dituela autopistako obrak egiten diharduen Moyua, Murias, Galdiano eta Altuna y Uria aldi baterako enpresa batasunaren aurka. Alde batetik, proiektuan aurrekusi ez den baserri bide bat erabiltzen ari dira kamioiak lurra garraiatzeko, hain zuzen ere, Mekolaldetik Belastegi Bolutik gora Gallastegi dorrrera doana. Garraio-lanetarako beste bide bat egitea aurreikusita zegoen proiektuan, baina ez dute bide hori egin eta baserriarrek erabiltzen duten porlanezko bidean ari dira kamioiak gora eta behera.

Bestalde, lurrak dagoen isurtegiatara eroan beharrean, Basalgo auzoko Albitxu eta Arizmendi baserrien artean dagoen ibarrean botatzen ari dira. Proiektuan jasota dagoena betetzea eskatzen du Bergarako Udalak eta horregatik ezarri du salaketa.



Lanean ari den kamioi bat erreka-ra jauzi zen martitzenean Belastegi Bolun.



Bi urterako enpresa ituna sinatuko dute Mayc-en.

ARTXIBOA

**Enpresa ituna sinatuko dute aurki Mayc-eko langileek**

**Mayc-eko langileen** eta zuzendaritzaren artean enpresa ituna sinatzeko akordio batera iritsi ondoren, eguenerako konbokatuta zegoen egun osoko greba eta gainontzeko protesta ekitaldiak bertan behera laga dituzte Mayc-eko langileek. Soldata igoerak eta lan baldintza hobekaldaritzeko protesta ekitaldiak eta lanuzteak egin dituzte azken bi egunetan. 1999 eta 2000. urteetarako, zuzendaritzaren eskaintza onartu ostean, langileek bertan behera laga dituzte atzorako eta hurrengo eguenerako deituta zituzten greba egunak.

1999rako 1,7 puntuko soldata igoera eta 2000. urterako KPI gehi puntu bat igoetzea adostu dute bi aldeek. Horretaz gain, soldataren eta primaren arteko erlazioa, 1999. urtean 18 puntutik 14ra jaitea eta 2000. urtean 14tik 10era jaitea. Gai sozialei dagokienez honako hau adostu dute: langile bat ospitalera errotan dutenean le-

hen egunetik %100 kobratzen hasia eta urtean behin mediku azterketa bat egiteaz gain, elektrokardiogramak egiteko aukera ere izatea, langile bakoitzaren premien arabera. Azkenik, langileen prestakuntzari dagokionez, aurrerantzean bitariko batzorde bat sortzea adostu dute sindikatuek eta zuzendaritzak, kasua kasu, ikastaroen onuradunak nortzuk izango diren erabakitzeko.

Bestalde, kabezerako linea ondo ez dabileneko eta enpresa lanez gainezka dagoelako, hemendik urte amaierara arte hirugarren erreleboa ezartzea onartu dute langileek.

Zuzendaritzaren eskaintza onartzeko langileen batzarra egin zen eguaztenean eta honako hau izan zen emaitza: 317 langilek eman zuten botoa, horietatik 165 langile eskaintza onartzearen alde agertu zen eta 141 kontra. Horretaz gain, baliorik gabeko hiru boto eta beste 8 boto zuri zenbatu ziren.

# Berrigara

382 zenbakia.  
1999ko urriaren 8a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:**

Eneko Azkarate.

**Erredakzioa:**

Eneko Azkarate, Edu Mendibil.

**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.

**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.

**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.

**Testuen zuzenketak:**

Estepan Plazaola, Alex Labaien,

Maripi Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:**

Miguel Angel Elkoroberezibar,

Alex Labaien, Gorka Elortza.

**Komikiak:** Bittor Rodriguez,

Gorka Ortega & Jon Alvarez,

Alex Ugaldé, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:**

Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,

Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

**Banaketa:** Txantxangorri taldea.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Berrigarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.  
Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### DESFILEA

Datorren domekan, hilak 17, egingo den moda desfilea dela eta kartelak ikusi ditut ugari herriko kaleetan zehar... Karteletan esaten denez, sarreretatik jasotako diru guztia Raul Luque bergarraren tratamendu klinikoaren kostua ordaintzera bideratuko da. Kartelok gaztelania hutsean idatzita daude. Raulen arazoak sentsibilitatea eskatzen du, baina kontuan izan dezatela kartela egin dutenek, beste batzuek ere sentsibilitatea eskatzen dugula era guztietako kartelak eta adierazpenak euskaraz jaso nahi ditugunenganako.

Jon Azkarate

### DEBAGUNEK

**-Deba Garaiko Euskara Elkartearen elkargoa-  
urtero argitaratzen duen egutegirako  
ARGAZKIAK BEHAR DITUGU**

### Antzinako lanbideen

(errementaritzza, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...)

argazki zahar edo berriak baldin badauzkazu, BERRIGARARA edo JARDUNERA ekartzea eskertuko genizuke.  
**Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.**

Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97.

Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

## tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Bideberrin farolak ipini bihar dittue. Zer iritzi daukazu honi buruz?



**Iñaki Jauregi**

Ondo pentsatzen jat, gabaz ilunpetan egon biharrian inguru ondo argittuta egotia ondo ikusten dot. Neska-lagunarekin bazare, beste norabait joan bihar...



**Maria Luisa Unamuno**

Ondo dago herrixa argiztuta egotia. Igual, auzunietan, Ozetan-eta, argixa jartzeko premiña gehixago egongo da, baiña ondo dago hemen be jartzia.



**Jose Antonio Gomez**

Nik uste dot Bideberrin ez daola argixa jartzeko premiñarik. Udako gabetan ilunpian egoteko toki aproposa da, gaztientzat batez be. Ez neuke jarriko.



**Isabel Valle**

Ondo dago, baiña Mugertza eta San Antonio inguruan be badago premiña. Zurraderon, berriz, argi larregi dago.



**Ander Larrañaga**

Bideberrin ez gara asko egoten, baiña ondo dago argixa jartzia. Hala be, batzuetan ilunpian egotia be ondo dago, e!



**Gema Idigoras**

Bideberrin argixa jartzia neurri egokixa dala uste dot, oso ilun dagoelako. Poligonuan-eta, ostera, nahikua argi dago.

Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.  
Identifikazioa beharrezkoa.

### BABES OFIZIALEKO ETXEAK

**J. M. Garcia** izan dugu aste honetan erredakzioan. Urteagan eraiki behar dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan, Udalaren eta Jauralaritzaren ekimena txalotu nahi du, baina babestutako etxe gehiago egin beharko lituzketela dio. Aitortzen du, Uhola erreka bideratzeko lanak amaituta, bariante berria eta etxeok egiten direnean San Antonio dotoretu egingo dela. Halere, J. M. Garcia dio babes ofizialeko etxeak herriaren erdian egin beharko lituzketela, herriko toki ederrenetan, ez auzuneetan. Esaterako, Ibargarain, orain egiten dabilzan etxeen ondoan; eta kalitate berekoak, ez kaskarragoak.

PANA DE ROKUA  
JATE ETXEA

Asteburuetan bertako  
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 ELGETA  
Tf. 943 76 82 73

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
943 76 50 68

## Eskulan ikastaroa

**Noiz:**  
urriaren 18tik maiatzera arte  
**Non:**  
Kartzela Zaharrea  
**Ordutegia:**  
15:30etatik 17:00etara  
**Prezioa:**  
3.500 PTA Jarduneko bazkideek;  
4.000 gainontzekoek  
**Matrikula epea:**  
urriaren 15a.  
**Informazioa:**  
Jardun elkartearen (Kartzela zaharra)  
943 76 08 19 / 943 76 36 61



**Dixula**

**BOKATAK  
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32  
Tf. 943 76 44 95

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

■ adituen esanetan

## Selektibitate berria

Aurtengo ikasturterako hainbat aldaketa proposamen daude selektibitatean. Orain arte frogaz ezberdinak bi egunetan egin izan badira, datorren urtetik aurrera hiru egunetan banatuko lirateke. Helburua egunean, gehienez, lau ordu eta erdiko azterketa egitea da. Horrek neurri batean presioa arintzea ekar dezake. Era berean, iraileko konbentzioa desagertu egiten da eta ekainean eta uztailean egingo dira azterketak. Egindako proposamen berriaren arabera, selektibitateko notak %40 eta batxilergoko mediak %60ko balioa izango luke aurrerantzean unibertsitateko media ateratzeko orduan, eta hau ikasleen mesederako litzateke.

Ikasgai espezifikoei dagokienez, lau aukera mantenduko lirateke: zientifiko tekniko deritzona (matematika eta fisikako azterketak gehi aukerako beste bat), biosanitarioa (kimika, biologia eta aukerako bat), gizarte eta giza zientziak (gizarte zientzietarako mate-



MIKEL ALBERDI

*Aranzadi Ikastolako irakaslea*

*"Proposatzen diren aldaketen arabera, norberak egin nahi duen karrerako gaiak gehiago baloratuko dira"*

matika, latina eta hirurgarren bat) eta, azkenik, artistikoa (marrazketa, artearen historia eta beste bat). Proposatzen den beste aldaketako bat zera da: norberak egin nahi duen karrerako gaiak gehiago baloratzea. Hau da, ni mendikuntza egitera banoa, kimika eta biologiako gaiak garrantzi gehiago izatea.

Bestalde, hemendik aurrera azterketa bera bi irakaslek zuzenduko lukete. Aldaketa guzti hauetatik zailtasun gehien suposatzen duena litzateke. Orain arte zuzentzaileek beraiek faltan botatzen dute elkartzeko aukera izatea, aurkitzen dituzten zailtasunak eta komentatzeko. Beraz, zuzenketa nahiko arbitrarioa gertatzen da eta desoreka handiak egoten dira tribunal batetik bestera. Zuzentzeko orduan kriterio amankomun batzuk edukitzea ikastetxe guztion eskaera da. Era berean, zuzentzeko egiterakoan ikasleen eta ikastetxeen anonimotasuna gordetzea beharrezkoa ikusten dut.<



Artxiboko argazkian, orain dela urte batzuk Bergarako kiroldelgian egin zen selektibitateko irudia.

■ bergarako gordailutik

## JENDE ASKO ELIZAKO BATZARREAN Imanol Sorondo

San Pedro elizako erre-  
taula nagusia aspalditik  
egina zegoen, baina al-  
boetakoak ere itxura onekoak izatea  
nahi zen. Badakigu San Migelen eta  
Errosariko Andre Mariaren erretaulak  
XVII. mendeko erdialdean egin  
zirela, eta Zabaliatar Mateo azpeitarrak  
Bernardo eskultorea eta Ganuzatar  
Jose margolari eta erreztatzailea,  
Bernardo Elkaraeta, "trebetasun  
handiko gizona", Asteasukoa zen  
jaiotzez eta Kalzadako Santo Domin-  
gon zeukan tailerra. Lan guztia Za-  
baliaren esku utzi zuten; bukatu au-  
rretetik hil egin zen eta orduan, Zal-  
duatar Juani esan zioten jarraitzeko.  
Erretaulak ipiniak zeuden bere to-  
kietan 1657. urtean, eta hain kalitate  
handia daukaten irudiak, berriz, 3  
urte beranduago. Gaur ikusten ditu-  
gunak dira.

Baina hemen azpimarratu nahi  
dena batzarrean parte hartu zuten  
eliztarren kopuru handia da. Meza  
ondoren, San Pedroko sakristian el-  
kartu ziren 1652.eko azaroaren  
21ean. Han zeuden 6 apaiz; Udale-  
txetik 7 zinegotzi joan ziren, tartean  
Angizaintar Migel alkatea; gero 64  
eliztarren izenak ipintzen dira eta,  
azkenik, gehiago ere bazirela idaz-  
ten da. Olariagatar Juan, berriz, is-  
kribau lanetan aritu zen. Erretaulak  
egiteko korapilo nagusia dirua izat-  
zen zen gehienetan. Alkate jauna eta  
abade maisuaren ordezkaria zen Az-  
koegitar Prudentzioren esanetan  
Jauregitar Antonio jaunak 200 dukat  
eskainiak zeuzkan erretaula hauent-  
zako, eta baziren eliztar gehiago ere  
beste diru batzuk ipintzen zituzte-  
nak. Hamarrenetatik eta primizietat-  
tik ere hartu zitezkeen 100 dukat,  
eta beste hainbeste jaso urte bakoit-  
zeko Errege eta Amabirjinaren egu-  
netan egiten ziren ofrendetan. Dena  
aurrera eramateko 13 eliztar izenda-  
tu zituzten, tartean abade maisua eta  
alkatea. Santamainan 92 azaldu zi-  
ren beste batzar batean.<



## San Migel Lezoraino

Sekula baino azkarrago topatu dute aurten Angiozarko jaietan zeruratutako **San Migelen irudia**. Azken urteotan bezala, San Migel egunean, lau globos lagunduta, santuaren zeruratzea egin zen eta gauean bertan **Lezoko Iriarte-Enea baserriko Iñaki Legorburuk** aurkitu zuen, Gaintxurizketan, Jaizkibel ondoan. Santuaren irudia topatu eta telefonoz deitu zuen berehala Angiozarrera agerpenaren berri emateko. Sari gisa, **20.000 pezeta** eta Angiozar bisitatzeko gonbidapena jaso zuen **Jose Angel Mikeoren** eskutik. Santuak 50 kilometro inguruko ibilbidea bete zuen aurten. Ez da gutxi!!



## Nekazaritza Turismo Etxeen Elkarteko gerentea



**Ana Ilarduia** bergararra dugu joan zen irailaren 23an Donostiako Kursaal jauregian inauguratutako Euskal Herriko Nekazaritza Turismo Etxeen Elkarteko gerentea. Ana Ilarduia 29 urte ditu eta enpresaritza ikasketak egin zituen Donostian. Aurretik Banco Guipuzcoanon izan da lanean eta martxotik Nekazaritza Turismo Etxeen Elkartean ari da. Bulego berria Kursaal jauregiko denden ondoan dago, Zurriola pasealekuan. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, **Ion Arruti eta Juan Bautista Mendizabal** Nekazaritza eta Turismo sailburuordeak, **Ion Mikel Murua** Nekazaritza diputatua eta **EHNE eta ENBA** nekazal sindikatueta ordezkariek izan ziren. Gaur egun, turismoa jasotzen duten 190 baserri etxe dira Euskal Herrian.

## San Martinetako zozketa

**Bedelkarreko** harakinen laguntzaz, **Xamatx** dantzataldeak eta **Aritzeta** abesbatzak San Martin jaietan zozketatutako txerria **Elena Ezenarri** tokatu zai. Irailaren 18an egindako zozketan saritutako zerbakiaren jabea ez zen agertu eta agindutako epea bete ondoren, ordezkari zerbakia (9.965) saritu da. **Txerriaren ordezkari**, Elenak nahia-go izan du sariko **50.000 pezeta** eskuratzea. Argazkian Elena, **Ainhoa Arizabaleta eta Maite Barrena**, Xamatx eta Aritzeta ordezkariekin, eta **Ion Leturia eta Sebastian Imaz** harakinekin.



# Entzun mundua biraka



Musika, herrien arimaren, arnasaren eta sentipenen adierazle.

**MUNDUKO MUSIKA BILDUMA**  
arnasa horiek guztiak dantzan pentagraman.

Erritmoak, musika maileguak, mestizajea eta egungo teknologia-  
ren ekarpena sustriarekin bat  
eginda, iraupen luzeko 12 diskotan.

Urriaren 17tik aurrera  
ostegun eta igandeetan  
EGUNKARIA + 550 pta. 22 lib.

**Mundua ulertzeko...**



**Zure independentzia!**



# kontuola

**KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxu Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 44. zenbakia. 1999ko urriaren 8a.

## Gazte Txokoa martxan dagoeneko

### Hamaika urtetik gorako neska-mutikoei zuzenduta dago

**Gazte Txokoa martxan dago jadanik Joan den asteburuan hasi zen martxan Gazte Txokoa. Aurten gainera Antzuolatik zuzenduko da gaztetxoenen txokoa. Horretan ari dira herriko lau gazte eta eurek adierazi digutenez "neska-mutikoek parte hartze aktiboa izatea bultzatuko dugu".**

**O**rain dela hiru urte ireki zen Gazte Txokoa. Guraso Elkarteak bultzatuta, herriko gaztetxoek non egon eta non jolastu toki bila hasi zirenean.

Begarako Jardun elkarteak ordurako martxan zeukan gazteen aisialdirako gazte txokoa. Haura eredu bezala hartuta Antzuolako hainbat gurasok, Begarako dinamizatzailearekin batera, Gazte Txokoa jarri zuten martxan. Lau lagun hartu ziren asteburuetan lan egiteko. Kaixoko lokala egokitu eta hantxe ireki zuten hamaika urtetik gorakoentzako txokoa.

Joan zen asteburuan ireki zen berri ere. Izan ere, eskolako egutegi bera dauka Gazte Txokoak. Orain hasi eta ekainera bitartean egongo da zabalik.

#### LAU LAGUN

Leire Lizarralde, Silbia Martin, Joana Sanchez eta Jon Tena dinamizatzaileak ari dira neska-mutikoekin lanean. Baina "gure asmoa neska-mutikoak parte hartze aktiboa izatea da. Orain arte guk antolatzen genituen ekintzak. Aurten eurak zer ekintza egin nahi duten izango dugu kontuan. Hori dela eta, hainbat txoko finkoak izango dira Kaixon. Eskulanena, adibidez. Horrela, nahi dutenean arituko

dira eskulanak egiten. Ibilaldiak eta irteerak antolatzeko beste lekutxo bat jarriko dugu. Ziur gaude eurek ere badituztela ezagutu nahi dituzten tokiak".

#### AKANPADAK

Bi akanpada egin zituzten iaz eta aurten ere beste bi egingo dituzte. Baina oraindik ez dute erabaki nora joango diren. "Sorpresa bat izatea nahiko genuke. Iaz Legazpiko Kimuberri aterpetxera eta Elusura joan ginen. Oso ondo pasatu ge-

nuen. Aurten zerbait ezberdina probatu nahi dugu eta euren iritzia ere jaso nahi ditugu".

#### IZEN EMATEA

"Haur bakoitzak 5.500 PTA ordaindu behar ditu bi alditan. Irteerak egiten direnean ere haur bakoitzak zati bat ordaintzen du". Iaz 65 bat neska-mutikok eman zuten izena eta asteburuero bataz beste 35 bat aritu ziren. Ordutegia, asteburuetan 16:00etatik 20:00etara da. ■



Bilarra eta futbolina ere badituzte Gaztetxokoan.

Orain hasi eta ekainera arte egongo da zabalik  
astebururo 16:00etatik 20:00etara

**IKASTAROAK GUZTIENTZAT**

Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu urritik aurrera. Zeramika eta eskulan ikastaroak 40 ordu izango ditu eta martitzenero eta eguaztenero izango da, hurrenez hurren. "Maketagintza, modelismoa eta berunezko soldaduak" egiteko aukera ere izango da. Ikastaro hau astean bi egunetan edo egun baten egitea jendearen aukeran geldituko da. Altzariak berrizten ikasteko ere eskolak emango dira. Hau zapatutan izango da eta 52 ordu izango ditu. Azkenik, margo-tzea atsegin dutenentzat olio ikastaroa antolatu dute. Hau Mikel Aristegi bergararrak eskainiko du eta eguaztenero izango da. Azken hau urte osoko ikastaroa izango da. Ikastaro guztiak 3.000 PTA kostako dira eta behar den materiala aparte izango da. Guztietarako izena emateko epea urriaren 15ean amaituko da.

**JANARIAK MINTZAGAI**

Urriaren zehar egiteko hainbat hitzaldi antolatu ditu Udalak jakien inguruan. Astearen behin, eguaztentero, eta arratsaldeko 15:00etan jakiak izango dituzte hizpide hainbat hizlarik. Joan den eguaztentero izan zen lehenengo hitzaldia. Bigarrena urriaren 13an izango da eta azkena berriz, urriaren 20an. Hitzaldi sorta honen helburua elikadura orekatua eta osasungarriagoa eramaten lagungarri izatea da. Hori dela eta, kontserbak nola egin, jakien osagaiak osasunean duten eragina eta jakien elaborazioan erabiltzen diren produktuak landuko dira.

**ARGAZKI LEHIAKETA**

Urriaren 22an amaituko da Udalak antolatutako argazki lehiaketan lanak aurkezteko epea. Gogoratu argazkiak 30x40 neurria duen euskarri batean aurkeztu behar direla, kolorez zein zuri-beltzean. Gaia, berriz, librea da, beraz nahi den argazki mota aurkeztu daiteke. Sariet dagokienez, lehen mailan 25.000 PTA eta 15.000 PTA bigarrena izango dira




**Xabier Azkarate**  
18 urte  
Atzeina



**Haritz Alonsa**  
17 urte  
Atzelaria



**Aron Almena**  
17 urte  
Atzelaria



**Gotzon Zabalo**  
16 urte  
Atzelaria

**Gazte mailako futbol taldea**

**Gazte mailako** AKEko futbol taldeak laugarren norgeiagoka jokatuko du zapatuan Eibartarrak B taldearen aurka. Gurutz Zabalok eta Mikel Larrañagak zuzentzen dute taldea, biak ere futbol jokalaririk.



**Ieltxu Mendizabal**  
17 urte  
Atzelaria



**Mikel Urzelai**  
18 urte  
Atzelaria



**Unai Gezalaga**  
18 urte  
Atzelaria



**Jose Jabier Acosta**  
17 urte  
Atzelaria



**Jabi Peñalba**  
17 urte  
Atzelaria





**Mikel Bargiela**  
16 urte  
Atzelaria

**KALEGOI 19** ☎ 943 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •



Bidea eginez

**Tailerra:** Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

**Erakusketa:** Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu



**Eneko Zabaleta**  
17 urte  
Erdilaria



**Josu Zubikarai**  
16 urte  
Erdilaria



**Jon Pagaldai**  
16 urte  
Erdilaria



**Jon Iturbe**  
17 urte  
Erdilaria



**Erik Lizarralde**  
16 urte  
Erdilaria



**Eneko Iturbe**  
18 urte  
Erdilaria



**Uraitz Gartzia**  
18 urte  
Aurrelaria



**Josu Segurola**  
17 urte  
Aurrelaria



**Samuel Cuevas**  
18 urte  
Aurrelaria



**Gorka Iglesias**  
16 urte  
Aurrelaria



**Gurutz Zabalo**  
Entrenatzailea



**Mikel Larrañaga**  
Entrenatzailea

**Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon**

1. Unaiak egin dau.

1. ....

2. Etzi pasautakuan juango gara.

2. ....

Izen-abizenak eta telefonua: .....

.....

**idolaz** bertoko hizkeria  
ANTZUOLA

Hemen daukuzue lehiaketa berrixa. Parte hartzia erreza da oso, beraz badakizue: erantzun zuzena asmatu eta sari edarra eskuratuko dozue.

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegixan, **DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.** Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburua 3 ale zozketatuko ditugu hamabostero.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

**Igor eta Txomin C.B.**

Margoak  
orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131  
BERGARA 609 150 164

Jesus Mari Mata, Pausokako kidea

“Guraso Eskola bultzatu nahi dugu”

Guraso Elkartearen eta Udalaren laguntzarekin Guraso Eskola jarri du martxan Pausokak. Ikastaro osoa izango da, hau da, urrian hasi eta ekainera bitartean. Gurasoak hezteko helburuarekin antolatu da eta Iñaki Olaskoaga psikologoak zuzenduko ditu saioak. Jesus Mari Mata eskola berezi hauek antolatzen aritu da. Guk eurekin egin dugu berba Guraso Eskola zer den jakin nahian.



Jesus Mari Mata Pausokako kidea aritu da Guraso Eskola antolatzen.

**Z**er da guraso eskola ?

Antzuolako guraso danei eskeiñi nahi jakuen zerbitzua da. Gizartian alor desberdinetarako formakuntza ikastarua emoten dira, baiña ez, ostera, guraso izetiaren gorabeheren gaiñian gogoeta egitteko ikastarua. Eta horixe da, hain zuzen be, seme-alaben gaixetaz berba egitteko eta pentsatzeko lekua eta ordua izatia, beti be baldian.

**Ze helburu dauka?**

Guraso izetia dazkarren zailtasunen gaiñian berba egitteko lekua izetia.

**Hori ez duzue kuadrilan egiten?**

Ez, asko kostatzen jakulako denpora hartzia norren gaiñian pentsatzeko, jarduteko eta erreflexiño bat egitteko. Talde baten barruan sortzen diran idiak aberatsaguak dira.

**Nola funtzionatuko du?**

Ikasturtiaren iraupena dauka eta psikologo batek dinamizatuko dau. Gurasoei inkestatxo bat pasatuko jakue, landu nahi diran gaixei buruz informaziñua jasotzeko eta gurasoen problematika ezagutzeko. Saiuak, gaiñera, euskeraz eta gaztelaniaz izengo dira.

**Ze maiztasunekin elkartuko zarete?**

Guraso talde batek osatuko dau taldia. Hamabostero alkartuko gara eta

taldia Iñaki Olaskoaga psikologoak dinamizatuko dau. Berak koordinatuko dittu parte hartziak eta bera izengo da informatzeko eta orientatzeko arduraduna. Gogoetak eta ariketa praktikuak pe egingo dira. Dinamika horretan noiz behiñetan, hitzaldi monografikuak tartekatuko dira.

**Zenbat lagunentzat da?**

Taldiak ondo funtzionatzeko 8 lagun bihar dira gutxienez eta 20 gehixenez. Horregatik 20 guraso baiño gehixa-

gok emoten badabe izena, ordena jarraituko da, hau da, izena emoterakuan zenbatgarrena izen zaren kontuan hartuko da.

Urriaren 13an billeria egingo dogu taldia dinamizatzen jardungo daben Iñaki Olaskoaga psikologuarekin. Udaletxian izango da 18:30etan. Izena emotia urriaren 22ra arte egongo da zabalik. Udaletxera jua biharko da horretarako eta 5.000 PTA ordaindu guraso bakoitzak. ■



“Guraso izetia dazkarren zailtasunen gaiñian berba egitteko lekua izetia da helburua”



**GOROSTI**  
**Taberna**

☎ 943 76 62 96  
Zurrategi plaza ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriadako pinturak
- Paper margotuak
- Mokatet eta tapizatuak

**ANTZUOLA**

Apaintetaket eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
Tf.: 943 72 30 05  
Billegia: 943 78 70 40

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tf. 943 78 70 32




# COMERCIAL BRUNET

Ozaeta 11-13, behea - **BERGARA** (Gipuzkoa)

Tf. 943 76 31 52 - Tf./faxes 943 76 70 12 - Mugikorra: 670 824 976

## SALMENTA ETA KONPONKETA

*Bezere eta lagun guztioi Elosuko ferixa egun ederra opa dizuegu!*



**DEBA GARAI eta BEHEKO BANATZAILE OFIZIALA:**



UNTXI-HAZKUNTZA



HEGAZTI-HAZKUNTZA



ZINEGETIKA

# IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia eta BIOTER produktuak




ARDI ETA AHLUNETZ AZIENDAK



*Ondo ibili Elosuko ferixan!*

San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



ZALDIAK



Laugarren urtez jarraian, Jardun Elkartek "Astebukaeretakoa aisialdia" izenburuko programa jarriko du martxan astebukaera honetatik aurrera. Aipatutako programa 11 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Neska-mutilek Kartzela Zaharrean biltzeko aukera daukate zapatuetan eta domeketan, arratsaldeko 4retatik 8etara bitartean.

# Kartzela Zaharra zabalik gaztetxoentzat

"Astebukaeretakoa aisialdia" programa martxan jarri da

**J**ardunen helburuetako bat ikastetxe ezberdinetako ikasleak bildu eta elkar ezagutzea eta, aldi berean, 11-14 urte bitarteko gaztetxoek astebukaeretakoa lokal bat eskaintzea. Esan bezala, plangintza martxan jartzen den laugarren urtea da aurten. Nekane Gabilondo Jarduneko kidearen hitzetan, "orain arte erantzun ona jaso izan dugu eta bertara etortzen direnek gauza piloa egiteko aukera daukate urritik ekainera bitarteko astebukaeretan. Gaztetxoek horrelako lokal bat izatea oso ondo dago. Dena den, oraindik ere Jardunen aldetik lan asko dago egiteko, adin horietan euskararenganako sentsibilizazioa lortzea ez delako lan erreza. Adin berezian daudenez, euskararekiko jarrera aldatzea ere ematen da hainbat kasutan eta euskal gunea beraien erreferenteetako

bat izatea lortu nahi dugu, batez ere B ereduan ibilitako ikasleentzat, ingurune erdalduna dutenentzat". Jarduneko kideek dei berezia egin nahi diete OHoko 6. mailara arte euskara errefortzuetan ibilitako ikasleei, Kartzelako ekintzetan euskara hobetu eta, aldi berean, ondo pasatzeko aukera izango dutelako.

## 140 GAZTETXO IAZ

Joan zen urtean 140 gaztetxok eman zuten izena "Astebukaerako aisialdia" programan parte hartzeko. Gehienak Aranzadi Ikastolakoak zirenez, Jarduneko arduradunek ikastetxe guztietatik ikasle kopuru antzekoa lortu nahi dute aurten; "ikastetxe guztiengana jo izan dugu aurreko urteetan baina Aranzadi-koak izan dira hasieratik interes gehien azaldu dutenak. Gustatuko litzaiguke

ikastetxe guztien ordezkarietza berdintsua izatea, modu horretan elkartrukea aberasgarriagoa izango litzatekeelako". Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko eta interesatuek bazkide txartela eskuratzeko bi argazki eta urteko kuota (3.400 pezeta) ordaindu beharra daukate aurretik. Nekanereren esanetan, "urtetik urtera partaide kopuruak goratu egin du, baina hori baino gehiago interesatzen zaigu interesatutako jendea etortzea eta lagunartean ondo pasatzea".

Astebukaera honetan Kartzelako ateak guztientzat zabalik izango dira baina datorren astetik aurrera bazkide txartela beharrezkoa izango da ekintza ezberdinetan parte hartu ahal izateko. Izen-ematea urte guztian izango da zabalik Jardunek Kartzela Zaharrean dituen bulegoetan.

# Astebukaera honetako ekintzak



## Zapatua

17:00. Futbolin eta ping-pong lehiaketak eta mahai jokoak. Ordubete lehenago egin beharko da izen-ematea. Arratsaldean zehar eskulanak (pultserak, kollarrak eta horrelakoak) egiteko aukera izango da.

## Domeka

17:00. Norgehiagoka lehiaketa. Bost-zazpi lagun bitarteko taldeak osatuko dira eta partaideek hainbat galderei erantzun beharko diete. Amaieran sari-banaketa egingo da.

## Astlehena

17:00. Asanblada.

## Martitzena

17:00. Jolasak. Materialik gabeko jolasak, irudimena lantzekoak eta ezer gabe jolasten ikasteko aproposak.



Urtean zehar era guztietako ekintzak antolatutako dira Kartzelan. Gaztetxoek euren lokal propioa izango dute eta beraiek izango dira asanbladaren bitartez, antolatu beharre erabakiko dutenak.

## BEGIRALEAK ETA ASANBLADA

Gaztetxoekin batera, begirale lanetan, Eider Aranzabal, Maider Azkargorta, Nuria Barrero, Ane Miren Zabala eta Saioa Ziarsolo bergararrak arituko dira. Zapatu eta domeketan kartzela lau orduz zabalik izango da eta gaztetxoek gehien komeni zaien orduan joateko aukera izango dute. Aurtengo nobedadeetako bat asanbladarena izango da. Hileroko bigarren zapatuan neska-mutilek bilera egingo dute, beraiei interesatzen zaizkien gauzei buruz berba egiteko eta hilean zehar egin nahi dituzten ekintzak proposatzeko. Asanbladaren bitartez, programazioa zehazterako orduan, partaideak ahalik eta inplikatuena egotea lortu nahi dute antolatzaileek, funtzionamendu arauak eta bestelakoak guztien artean erabakiko dituztelarik.

Bestalde, Kartzelako zeldetako bat berba egiteko txokoa bihurtuko da ikasturtean zehar. Bertan, lagun koadri-lek biltzeko eta bestelako ekintzak (kartelak, jolasak, etabar) gauzatzeko aukera izango dute.

## EKINTZA BEREZIAK

Urtean zehar egingo diren ekintzen artean eskulanak, jolasak, irteerak, akanpadak edota lehen aipatutako hizketan egiteko txokoa aipa daitezke. Lehen akanpada abenduko zubian egiteko as-

moa dago eta abendu aldera jaialdi bat antolatuko da, play-back lehiaketa eta bestelakoekin. Dena den, gaztetxoek beraiek esango dute zer nolako jaialdia antolatu nahi duten. Udaberri aldera, Txotxongiloen Nazioarteko Mostrarekin lotutako ekitaldiren bat egingo da ziurrenik eta, horrez gain, mendi irteerak, sukaldaritza lehiaketak, bideo eta diapositiba emanaldiak, mahai jokoen lehiaketak, Gasteizera izotzetan patinatzerako joateko irteerak eta beste hainbat izango dira ikasturtean zehar.<

**Ikasturtean zehar, astebukaeretan, 11-14 bitarteko neska-mutikoei zuzendutako ekintzak antolatuko dira Kartzelan**

# Kadete eta jubenil mailako Baque pilota txapelketa hasi da

## Martitzenero jubenil mailako partiduak Bergaran

**Martitzenean hasiera eman zitzaion Bergaran Baque Txapelketaren seigarren edizioari. Aurtengoan 180 pilotari ari-tuko dira jubenil eta kadete mailatan eta pilota-riak lau zonatan banatu-ko dira. Deba aldeko jubenilek Bergarako Udal Pilotalekuan jokatu-ko dituzte partiduak.**

Martitzeneko lehenbizi-ko jardunaldian, Joseba Her-ran bergararrak bigarren kanporaketarako txartela lortu zuen Eskoriatzako Elizbururi 22 eta 11 irabazi ondoren. Abraham Larrañagak, aldiz, 8 eta 22ko emaitzarekin galdu zuen Hernando eibartarraren aurka eta, beraz, kanpoan geratu da. Antzuolan txapelketako beste hiru partidu jokatu ziren martitzenean. Xabi Eguren bergararrak galdu egin zuen Biteriren aurka (22-4) eta Antzuolako ordezkariak zorte ezberdina izan zuten; Agirrek 22 eta 15 irabazi zion Matari, eta Apraizek, berriz, Alkortaren aurka galdu zuen (22-4). Bergara K.E.ko pilota saileko Joseba Orgaz, Ander Muruamendiaraz eta Julen Aranburu jubenilak ere txapelketan dira oraindik. Orgazek eta Muruamendiarazek martitzenean Angiozarren jokatu-ko dute euren lehenbiziko partidua.

Kadeteen mailan, martitzenean, hilak 12, goizeko 10:30etatik aurrera, Aretxabaletako pilotalekuan honako partiduak izango dituzte



Ander Muguruzak eta Iker Muruamendiarazek txapela bana lortu zuten astebukaeran Berrizen eta Oñatin.

bergarar pilotariak: Beñat Iñarrak Lezetaren aurka jokatu du, Asier Larrañagak Oihana Mata neskaren aurka eta, azkenik, Ander Gabilondok Iturberen aurka neurtu beharko ditu indarrak.

Txapelketan parte hartzen ari diren gipuzkoar pilotari guztiak lau zonatan banatu dituzte eta, zona bakoitzean, kadete zein jubenil mailako bi onenak sailkatuko dira. Txapelketaren azken fasea abenduan Iru-nen jokatu da.

### UDAL PILOTALEKUA ITXITA

Datorren astean Bergaran jokatu beharreko partiduak Angiozarko Arbiaska pilotalekuan izango dira, Udal Pilotalekuan kantxa eta kon-

trakantxa zatitzen duen egur zatia aldatzen ari dire-lako. Pilota saileko ordezkariak haserre zeuden aldake-ta hori lehenago egin ez izanagatik. Kirol Zerbitzuaren arabera, joan zen irailaren 25ean Frontoian izandako areobitonean hondatu zen guztiz egurra eta hori dela eta hartu da orain aldatzeko erabakia. Udal langileak eguaztenean hasi ziren egurra aldatzeko lanetan eta euren arabera astebetean amaituko dira.

### MURUAMENDIARAZ ETA MUGURUZA TXAPELDUN

Bestalde, Ander Muguruzak jubenil mailako Berrizeko lau terdiko txapelketa irabazi zuen ostiralean, finalean

Erauskin lemoarrari 22 eta 19 irabaziz. Elgetakoaren ondoren, gazte mailako lau terdiko txapelketarik garrantzitsuenak da Berrizeko eta ekainetik hona Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako pilotari onenek hartu dute bertan parte. Finala erritmo biziz jokatu eta bi pilotariak ere euren maila ona erakutsi zuten.

Eta zapatuan, Iker Muruamendiarazek, Erauskin bizkaitarrarekin batera. Oñatiko Binakako San Migel txapelketa eskuratu zuen, Arbizu eta Errandoneari 22 eta 13 nagusitu ondoren. Iker atzo, osteguna, Almeriara joatekoa zen. Espainiako selekzioarekin Munduko Kopan hartuko du parte datozen egunotan.



## Frontenis txapelketa

**Binakako** frontenis txapelketaren hasiera urriaren 16ra arte atzeratu da. Izen-ematea urriaren 14ra arte izango da zabalik Kirol Zerbitzuan eta egun horretan bertan partehartzaileekin bilera izango da arratsaldeko 18:30etan Kultur Etxean. Partiduak Angiozarreko Arbiaska pilotalekuan jokatu dira zapatu goizetan.



Nesken taldeak ligari ekingo dio zapatuan.

## Areto futboleko ligako bi partidu asteburuan

**Areto futboleko** senior mutilen Lagunak taldeak 2 eta 7 irabazi zion astebukeraren Tolosari egindako bisitaldian, ligako lehen jardunaldian. Peli Iturrikastillo (3 gol), Gorka Aiestaran, Ibon Agirre, Aitor Anton eta Luis Mari Cambronerok izan genituen golegileak.

Joan zen urtean Lagunak taldeak ez zuen senior ekiporik izan, baina aurten 12 lagunez osatutako taldea egin eta duela bi urte bezala 2.A mailan ari da jokatzeko. Gaur, gaueko 10:30etatik aurrera, Labegaraietan, Andoingo Buruntza taldearen aurka jokatu du David Lopez de Abetxukok entrenatzen duen taldeak.

Joan zen jardunaldian jokatuako partiduarekin

pozik azaldu da "Txuko"; "ekipo gaztea dugu; badira gu baino esperientzia handiagoa duten taldeak baina ilusioz ekin diogu ligari".

Nesken taldeak astebukera honetan debutatu du liga probintzian. Mikel Fernandezek taldeak Zestoa B izango du aurrean zapatuan, 18:30etan, Kiroldegian. Oraingoan 8 lagun ari dira taldean eta Mikel Fernandez "Pope"ren arbera, "aurreko denboraldian maila ona erakutsi genuen eta aurten ere ondo aritzeko asmoa daukagu. Taldea sendotzen ari da eta etorkizunerako talde ona izango dugu. Ikusleen laguntza ere ezinbestekoa da etxeko partiduetan. Zaletuei etortzeko dei egin nahi diet".

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### Bergara-Billabona

Lehen mailako jubenilak  
Zapatua. 17:00. Agorrosin

#### Bergara-Almen

Infantilak

Domeka. 10:00. Ipintza

#### Bergara-Eibartarrak C

Bigarren mailako jubenilak  
Domeka. 11:30. Ipintza

#### Bergara-UPV

Hirugarren maila

Martitzena. 16:45. Agorrosin

### ARETO FUTBOLA

#### Lagunak-Buruntza Andoain

Gizonezkoan bigarren A maila  
Eguakitza. 22:30. Labegaraieta

### ESKUBALOIA

#### Iraundi Bergara-Arrasate

Senior mutilak

Domeka. 12:15. Labegaraieta

### SASKIBALOIA

#### Bergara-Askatuak

Kadete mutilak

Zapatua. 12:15. Mariaren  
Lagundia

### PILOTA

#### KLUBEN ARTEKOA

#### Bergara-Añorga

Bigarren mailako jubenilak

#### Bergara-Hernani

Lehen mailako seniorrak (banaka)

#### Bergara 1-Aretxabaleta

Bigarren mailako seniorrak

#### Bergara 2-Eibar

Bigarren mailako seniorrak

Gaur, urriak 8, eguakitza. 19:30.

Angiozarreko Pilotalekua

#### CAFE BAQUE TXAPELKETA

#### Orgaz-Agirre

Muruamendiaraz-Igartua

#### Unanue-Lizarralde

#### Romaratezabala-Moro

Martitzena. 10:30. Angiozarreko

Arbiaska Pilotalekua.

## Golf ikastaroa

**Handicap** ateratzeneko golf ikastaroa izango da Urturín, Araban, urriaren 16an eta 23an, goizez 11:00etatik 13:00era eta arratsaldez, berriz, 16:00etatik 18:00etara. Izen-ematea egin eta argibideak jaso Kirol Zerbitzuan egin ditzaitezue, 943 77 91 67 zenbakian.

## Angiozarko pilotalekua

**Gabonak** bitartean astero Angiozarko pilotalekua alokatzeko interesa dutenek izena emateko epea urriaren 18ra arte zabalik izango dute Kirol Zerbitzuan.

## IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

## LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



# Labegaraietako futbito txapelketa

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN BARRUAN

- 09:30: Patxaran Team-Amilotx
- 10:30: Buya-Ion Autoak
- 11:30: Uve Bikoitza-Vacalouras
- 12:30: Patatus-Agirrebeña Jatetxea
- 16:00: FAC-Bar Canalejas
- 17:00: Artusamak-Guadalest

- Buya
- U. Bikoitza
- Patatus
- Vacalouras
- Guadalest
- FAC

### DOMEKAN BARRUAN

- 09:30: Txipiron-FAC
- 10:30: Xurrupak-Errotagain
- 16:00: Etengabe-Mo(ko)lotov
- 17:00: Ufala-Komando Piperrak
- 18:00: Moskis-Pagomendi

- Xurrupak
- Txipiron
- Ufala
- Moskis
- K. Piperrak

### MARTITZENEAN BARRUAN

- 11:30: Bildurbarek-Urruxurtu
- 12:30: Ari Ari-Azpeitxi Jatetxea
- 16:00: Buya-Torrekua
- 17:00: K. Piperrak-Artusamak
- 18:00: Aterpe-Guadalest
- 19:00: Orzi-A Ze Flaxa
- 20:00: Shaktale-Uve Bikoitza

- Ari Ari
- Urruxurtu
- Artusamak
- Aterpe
- Orzi
- Shaktale
- A Ze Flaxa

## GORA ETA BEHERA



### Mongatxurak eta Orzi

Gogor ekin diote txapelketari Labegaraietako betenaroenetakoei, jokaturako bi partidua nagusitasun osoz irabazi baitituzte, gol ugari sartuz gainera. Pagomendi eta Xurrupak taldeak ere fin dabilta.



### Bildurbarek Opel Lam

Martxa ezin harturik dabilta izako ligako play offetako txapelkun ordeak. Jokatu dituzten bi partidua galdu dituzte, azkena, jokalaria bat gutxiagorekin, eta ordainketa epeaz kanpo egiteagatik 3 puntu kendu dizkiote.

## ARGI! Barkamenak La Juveri

Joan zen asteazken jarri genuen La Juveri hiru puntu kenduko zizkiola Antolaketa Batzordeak izen-emate kuota ez ordaintzeagatik. Orain, batzordeak barkamena eskatu nahi dio La Juveri, ordainketa garaiz egin zutelako eta gaizkiulertua izan zelako. La Juveri ez dizkiote 3 puntu kendu.

## EMAITZAK

### A MULTZOA

La Juve-Azpeitxi jatetxea	2-10
Pagomendi-Irubide jatetxea	5-2
Pinturas Bergara-Eri	3-6
Mo(ko)lotov-Moskis	0-3
Etengabe-Ari Ari	0-6

### B MULTZOA

Tom Cat-Bildurbarek Opel Lam	10-4
Mongatxurak-Patatus	12-2
Amilotx-Agirrebeña	2-5
Urruxurtu-Amozkibar	2-1
Bayer-Patxaran Team	3-3

### C MULTZOA

Torrekua-Orzi	2-9
Soropotroak-Vacalouras	1-5
A Ze Flaxa Etxagi-Agiñaspi	7-2

### D MULTZOA

Errotagain-Txipiron	6-2
Xurrupak-Aterpe	6-0
Ufala-Bar Canalejas	0-7

## SAILKAPENA

### A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	6	2
2. Azpeitxi Jatetxea	6	2
3. Ari Ari	6	2
4. Etengabe	3	2
5. Mo(ko)lotov	3	2
6. Moskis	3	2
7. Eri	3	2
8. La Juve	0	2
9. Irubide Jatetxea	0	2
10. Pinturas Bergara	0	2

### C multzoa

	P	J
1. Orzi	6	2
2. A Ze Flaxa Etxagi	6	2
3. Ion Autoak	3	1
4. Agiñaspi	3	1
5. Shaktale	3	1
6. Vacalor	3	2
7. Uve Bikoitza	0	1
8. Buya	0	1
9. Soropotroak	0	2
10. Torrekua	0	2

### B multzoa

	P	J
1. Mongatxurak	6	2
2. Urruxurtu	6	2
3. Bayer	4	2
4. Amilotx	3	2
5. Amozkibar	3	2
6. Tom Cat Argandolas	3	2
7. Agirrebeña Jatetxea	3	2
8. Patxaran Team	0	2
9. Patatus	0	2
10. Bildurbarek Opel Lam	0	2

### D multzoa

	P	J
1. Xurrupak	6	2
2. Errotagain	6	2
3. Artusamak	3	1
4. Guadalest	3	1
5. FAC	3	1
6. Bar Canalejas	3	2
7. Komando Piperrak	0	1
8. Ufala	0	2
9. Aterpe	0	2
10. Txipiron	0	2

## mahoneroak



LUIS HERZOG  
BKEko delegatua

Nire ustez Bergarak garaipea merezi izan zuen Lagun Onak taldearen aurkako partiduan. Gure taldeak hobeto jokatu zuen eta arbitroaren eruz ez genuen hiru puntuak eskuratzetik izan, azpeitiarren defentsak eginiko bi penalti ez baitzitu adierazi. Zorte txarra eduki genuen baina taldea ondo aritu zen.

Ikusleentzat ere partidua entretenigarria izan zela uste dut. Lehen zatian oso joku polita egin zuen taldeak eta bigarrenean aukerarik onenak gureak izan ziren. Gola egiteaz gain, Josetxok beste pare bat aukera izan zituen. Jokalariak gogo handiz ikusten ditut. Astebukeraren Sestao taldeari bisita egin beharko diogu eta hasiera batean puntuatzearekin konformatzen gara.

## Berrigara Saria

Zapatuko partiduan honako jokalariak nabarmendu ditugu:

- Josetxo Lizarralde.. 3 puntu
- Jon Andueza..... 2 puntu
- Etor Laskurain. .... Puntu 1

Etxeko partidua hartzen diren kontuan.




Aldibi autoak, S.A.  
Zigarrola 1 • ARRASATE  
Tf. 943 71 20 02  
Faxa: 943 79 65 65



## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2  
943 76 14 95

JAUJA  
KIROLAK

■ kronika: futboleko ohorezko kadeteak

## Garaipen erraza

**BERGARA** 3

**VASCONIA** 0

1999-X-2, 11:30

**AGORROSIN**

**Bergara:** Iñigo Ibarzabal; Mikel Ilarduia (Manex Altuna, 65. min.), Txomin De Vega, Mikel Rodriguez, Karmelo Gallastegi; Unai Agirre (Aritz Oregi, 65. min.), Ion Blazquez, Markel Agirre (Iñigo Albistegi, min. 50), Ibon Eraña; Igor Lete (Aitor Markos, 65. min.) eta Imanol Cabanillas (Aitor Baz, 65. min.).

**Golak:** 1-0. Mikel Rodriguez. 2-0. Imanol Cabanillas. 3-0. Imanol Cabanillas.



doren, jokalariek primeran moldatu dira ohorezko kadeteen mailara. Lehenbiziko jardunaldian Azpeitiako Lagun Onak taldeari 1 eta 2ko emaitzarekin irabazi zieten eta zapatuan errez menperatu zuten Donostiako Vasconia taldea.

Hasiera-hasieratik bergararrak zelai erdian nagusi-

tu ziren eta berehala heldu ziren lehenbiziko aukerak. Mikel Rodriguez atzelariak egin zuen aurreneko gola lehen ordulaurdenean eta, ondorioz, bisitariak aurrera egin behar izan zuten berdinketaren golaren bila. Atsedena aurretik pare bat aukera izan zituzten baina mahoneroen defentsa

eta Ibarzabal atezaina ondo aritu ziren donostiarren erasoaren aurrean.

Bigarren zatian hasiera ematen zion sakea egitera-koan, Igor Letek zelai erditik golera jaurti zuen eta partiduko gola lortzeko zorian egon zen. Vasconiako atezaina larri ibili zen baloia kornerrean urruntzerako orduan. Era berean, Realetik Bergarara itzultitako Imanol Cabanillasek arriskua sortu zuen behin eta berriz eta, aurreneko partiduan bezala, beste bi gol sartu zituen zapatuan, bigarrena ezkerkanda bikain batekin. Hirugarren gola lortu eta gero, Oregiren taldeak lasaiago jokatu zuen eta Vasconiako jokalariek ez zuten inolako arriskurik sortu. Aulkian ziren bergarar jokalariek ere garaipenaz gozatzeko aukera izan zuten. Zapatuan Zarautz taldeari bisita egin behar dio Bergarak. Oregiren arabera, aurtengo liga oso gogorra izango da, talde benetan indartsuak direlako tartean, Real, Eibar edo Herrerako Sporting besteak beste. Hala ere, bergarar jokalarientzat ere motibagarria izango da aipatutako taldeen aurka jokatzea.

### JESUS MARI ZAMORA/ Realeko teknikoa

## "Taldeen beharrak ezagutu nahi ditugu"

**Realak izan duen jokalaririk bikainenetakoa izan da eta 1980. urtean txuriurdinei lehen liga eman zien gola sartu zuen Gijonen. Real eta probintziako taldeen arteko koordinatzaile ari da. Astehenean Ipintzan izan zen.**

**G.** Zer dela eta gaurko bisita?  
**E.** Realak hitzartutako taldeetako entrenatzaileekin egon nahi dut, irizpide batzuk bateratu nahian. Taldeetako beharrak eta proposamenak ezagutu nahi ditugu. Azpiko kategorietan zenbat eta hobeto lan egin, Realarentzat ere aberasgarriagoa izango da.  
**G.** Azpiko kategorietan zer da gehienbat landu beharrekoa?

**E.** Kalitate teknikoa hobetzeko baloiarekin asko entrenatu behar da eta, horrez gain, koordinazioa, bizkortasuna, oreka edota flexibilitatea landu behar dira, adin bakoitzari dagozkion arloei lehentasuna eman.

**G.** Badago adin klaberik?

**E.** Maila guztiak oso inportanteak dira.

Alebin eta infantiletan mutilek berrehala jasotzen dute teknika aldetik irakatsitakoa eta kadete eta jubenil mailetan beste gauza batzuk landu

behar dira baina aurretiko lana ondo eginez, futbolista eta pertsona onak lortu ditzagun.

**G.** Zeintzuk dira harrobi mailan egin beharrekoak markatzen duten herrialdeak?

**E.** Yugoslavia, Holanda, Frantzia... Ez dago pautak markatzen dituen herrialde bakar bat. Hemen ere lan ona egiten da.

**G.** Bukatzeko, Real zela ikusten duzu?

**E.** Taldeak gorabeherak izan ditu liga hasieran eta lasaitasuna behar da, batez ere prentsaren aldetik. Liga oso parekuta dago eta asko dira UEFARA sartzeko aukerak dituztenak.



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m<sup>2</sup>ko ganbara. 943 76 21 80.

Ibargarai. Estreinatze-ko. 610 80 37 19.

Pisua salgai Huelvan, garajeduna. 943 76 40 25.

Zabalotegi dorrea. 943 76 40 24.

**EROSI**

Pisu txiki bat erosiko nuke Bergaran. Deitu 656 72 02 42 telefonora.

**ERRENTAN EMATEKO**

Torremolinos. Hondartzak ondoan. 943 76 33 58.

Logela bat errentan Donostian, Amaran. Deitu 943 76 55 26 telefonora (gauetz).

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**  
Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua hartuko nuke alokairuan Bergaran. Telefonoa: 689 991 070.

Bergaran edo inguruan pisua alokairuan hartuko nuke. 943 76 03 31.

Bikote batek pisua alokairuan hartuko luke Bergaran edo Arrasaten. 619 15 44 06 (Fran).

**ETXE KONPARTITUAK**

Bilbon pisua konpartituzeko laguna behar da.

943 76 03 21.

Bilbo. Lagun bat edo bi behar dira pisua osatzeko. 943 76 28 17.

Bergaran lagun bat behar da pisua osatzeko. 656 72 02 42.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Torrekua. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Garajea saldu edo alo-

katzen da. 943 76 40 03.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Koldo Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

Antzuolan, Lizarragako hiribidean, salgai edom alokairuan. 670 49 87 40.

**ERRENTAN EMATEKO**

Antzuolan, Ibarrondon. 943 76 61 15.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 33 76.

**3. LOKALAK**

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m<sup>2</sup>. 13,5 milioi. 943 76 11 13.

**ERRENTAN EMATEKO**

Ibargarain, bulego lanetarako prestatuta. 607 34 46 58.

Matxiategi. 943 76 22 09.

Zubietan 136 m<sup>2</sup>. 943 76 08 18.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Mutila lanerako gertu. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrek zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen dituzte gauetz. 610 01 06 19

Etxeak garbitu edo zaharrak zainduko nituzke. 600 600 531.

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Lanak ordenadorez pasatzen dituzte. 943 76 10 94

Neska edozein lanetarako gertu, arratsaldean. 943 76 00 24.

Lanak ordenadorez pasatzen dituzte. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Urmeak zaindu arratsaldean. 943 76 34 48 (Mayra)

**DENA 100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

**943 76 03 97**



Berrigara GIDA 99an agertzen ez bazara eta 2000.ekoan agertu nahi baduzu, edo zure telefono edo helbidea oker agertzen bada, dei ezazu Berrigarara. Mila esker.

**Berrigara**



**ARRI**

**Industri Hornidura**

Zubiaurre 30  
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.  
Mugikorra: 670 31 92 44.

**MUJIKA Jantzidenda**

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

Astebukaeretan zahar-  
rak zainduko nituzke.  
Deitu 943 76 50 46  
telefonora (gauze).

**ESKAERAK**

Neska behar da haurrak  
zaindu eta etxeko lane-  
tarako. 943 76 31 86.

Neska behar da etxeko  
lanetarako. 943 76 31 11.

Neska gaztea behar da  
haurrak zaintzeko arra-  
tsaldetz. 943 76 70 33.

Neska gaztea behar da  
bi haur arratsaldetz  
zaintzeko, 16:30etatik  
19:00etara. 943 76 57 93.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAINTZAK**

Ingeles filologian lizen-  
tziatuak klaseak eman.  
943 76 30 28 (Ana).

Kitarra klaseak ematen  
ditut. 943 76 45 73.

Majisteritza diploma-  
tuak OHO klaseak ema-  
ten ditu. 943 76 57 70.

Solfeo eta piano klase-  
ak. Deitu 943 76 72 69  
telefonora.

OHO. 943 76 37 94.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Fiesta 1300 (SS-W) pre-  
zio ona. 943 76 63 29.

Lancia Delta.  
943 76 51 01.

Peugeot 205. Prezio  
ona Deitu 943 76 36 74  
telefonora.

Honda CBR 600 F  
motorra. 630 56 55 06.

Renault 19-16 V. 1.  
3 milioi. 943 79 10 08.

Ford Sierra 2.3 diesela  
(SS-U). 943 76 40 54.

Kawasaki GPZ 400 motoa.  
943 73 18 72 /73 12 82.

Yamaha Jog Scooter  
motorra (90 cc.) salgai  
943 73 18 72/73 12 82.

Citroen Saxo 1.1i. Bi ur-  
te. 943 76 12 66 (Xabi).

Chrysler kotxea salgai.  
Deitu 943 76 42 76  
telefonora.

Renault Clio Williams  
(SS-AP) salgai. 945 24  
11 25.

Derbi Senda motorra  
(49 cc.) egoera onean  
salgai. 943 76 09 27  
(Ivan).

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Artzain aleman txakur-  
kumeak. Pedigreedu-  
nak. 696 05 73 46.

Hiru txakur ar eta eme  
bat emateko. Boronda-  
tea jasotzen da.  
943 76 49 09.

Spaniel breton txakurku-  
meak. 943 79 19 63.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Karabina salgai egoera  
onean. 943 76 38 87.

Fotokopiadora, faxa eta  
mahaia. 607 34 46 58.

Errepideko Zeus bizikle-  
ta salgai. 943 76 49 88.

Ume-kotxe estalkiduna.  
943 76 06 89.

Marrazketa mahaia eta  
aulkia. 943 76 41 96.

Canyon piragua salgai.  
943 76 62 63.

Modema eta idazkama-  
kina elektronikoa. 619  
15 44 06 (Fran)

Piragua bat salgai. Oso  
egoera onean. 943 76

16 60 (Jabier).

Kitarra elektronikoa.  
943 76 44 27 (Unai).

Idazmakina elektroni-  
koa. 943 76 42 76.

Sony bideokamera pre-  
zio onean. 639 936 841

**EROSI**

Bigarren eskuko garbi-  
gailua erosiko nuke.  
Deitu 607 47 14 61  
telefonora.

**GALDU**

Urrezko medaila eta ka-  
taia (V.A. inzialak) galdu  
ditut Plaza inguruan. Sa-  
rituko da. 943 76 19 40.


Urrezko pultsera  
galdu dut. N.L. 94-IV-29  
inskripzioarekin.  
943 76 03 72.

Urrezko pultsera galdu  
da. Nora izena  
inskribatuta dauka.  
943 76 08 40.

**9. HARREMANAK**

**KONTAKTUAK**

41 urteko gizon batek  
emakumea ezagutu  
nahi luke. 943 76 40 03.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**ELEKTRIZISTAK, LH II**  
Arabar Lautada.  
22954/3

**BIDEOPORTERO**  
**INSTALATZAILEA**  
Bilbo. 24117/3

**ELEKTRIZISTA LH II**  
Durangaldea. 22990/6

**MAKINEN PINTOREA**  
Urola Kosta. 24176/3

**KARGA-DESKARGARAKO**  
**LANGILEA**  
Deba Garaia. 23648/1

**GAS INSTALATZAILEA**  
Bilbo. 24203/3

**ENPRESARITZAN EDO**  
**INJINERITZAN**  
**LIZENTZIATUAK**  
Bilbo. 23671/5

**TORNULARIA**  
Tolosa. 24210/2

**TORNULARIA**  
Tolosaldea. 24211/2

**FRESATZAILEA CNC**  
Donostialdea. 23789/4

**INFORMATIKA**  
**TEKNIKARIA**  
Durangaldea. 24213/4

**APAREJADOREAK**  
Ibaizabal. 23815/6

**SUKALDARIA**  
Soria. 24293/1

**PINTORE**  
**LAGUNTZAILEA**  
Ibai eskuinaldea.  
23817/4

**IRAKASLEA**  
Bilbo. 24296/1

**INJINERU TEKNIKO**  
Arabar Lautada.  
24028/1

**MANTENIMENDUKO**  
**MEKANIKARIA**  
Zaratamo. 24354/3

**FRESATZAILEA**  
Tolosa. 24212/2

**ILEAPAINATZAILEA-ES-**  
**TETIZISTA**  
Bilbo. 24431/1

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,  
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**


Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta  
eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Kizkur**

Ileapaindegia  
Estetika  
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



Martitzenean,  
urriak 12, **baba jana!**  
Deitu 943 76 28 92ra!

**UGARRIXA**  
MERENDEROA  
(Elosura bidean)

**Jantzidendan lan egiteko**  
**neska behar da**

Bidali curriculumak eta argazkia:  
320 posta kutxa  
20570 BERGARA



*Gozogintzan  
aintzindari.*

# Jubilatuen kultur hamabostaldia abian

Dani Laskurain pintorearen kartel irabazlea aurkeztu da aste honetan

**Martitzenean aurkeztu zen Kultur Etxean Bergara eta Antzuolako jubilatuen elkarteek antolatu duten III. Kultur Hamabostaldia eta berau iragartzeko erabiliko den kartela. Datorren egunean, hilak 14, hasi eta 30era bitartean egingo da hamabostaldia.**

Joan zen martitzenean Kultur Etxean egindako aurkezpen ekitaldian, Bergara eta Antzuolako jubilatuen elkarteetako buruak eta kartelaren egilea izan ziren. Egitaraua iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu dute eta Dani Laskurain pintore bergararra izan da irabazlea. 100.000 pezetako saria jaso du Dani Laskurainek. Esan behar da orain dela bi urteko edizioan ere bera nagusitu zela. Iaz, berriz, Juan Jose Altunaren lana aukeratu zuten. Bost lan aurkeztu dira aurtengo edizioan eta epai mahaiak lanen kalitatea nabarmendu du.

Bostekoa ematera doazen bi esku dira kartelaren elementu nagusiak. Elementu bera errepikatu egiten da, baina koloreekin jokatu du egileak. "Kolore aniztasunarekin pentsakera ezberdinak adierazi nahi izan dituzte" esan zuen Dani Laskurainek martitzeneko aurkezpen ekitaldian.

## ERA GUZTIETAKO KULTUR EKITALDIAK

"Pakea ekarri gatazkara" da Antzuola eta Bergarako jubilatuek antolatutako III. Kultur Hamabostaldiaren leloa. Lema horixe erabili da kartel lehiaketan ere. Aisialdiko eta kultura arloko hainbat ekitaldi iragarri dituzte. Jose Antonio Pagolak, elizbarrutiko bikario nagusiak, datorren egunean Miguel Altu-



## DATORREN ASTEKO EKITALDIAK

### Eguena 14

**Jose Antonio Pagola** bikario nagusiaren hitzaldia: "Gatazkak leuntzea: erroka eta aukera", 19:30etan Miguel Altuna zaharrean.

### Eguakitza 15

**Jolas eta kultur giroko jaiak**, bertsolari gazteen saioa, merienda eta dantza, San Joxepe jubilatuen etxean 18:00etan.

### Zapatua 16

**Antzuolako Antigua auzoko errotara** eta ermitara bisita. Ondoren, meza Antzuolako parrokian, bertako eta Bergarako jubilatuen elkarrekin abesbatzekin. Jarraian, lancha. Bergaratik autobusa 17:00etan aterako da.

Laskurainek 100.000 pezetako saria jaso zuen.

na institutuan emango duen hitzaldiarekin emango zaio hasiera hamabostaldiari. Hasiera ekitaldian, Antzuola eta Bergarako jubilatuen elkarteetako zuzendaritza batzordeko kideek hamabostaldiaren helburuak azalduko dituzte eta Gipuzkoako Diputazioko Gizarte-tekintza departamentuko kideak ere izango dira. Bestalde, urriaren 30ean, zapatua, Udal biltegian egingo den herri bazkariarekin emango zaio amaiera hamabostaldiari. Bi astetan zehar, hitzaldiak, mahai-inguruak, irteerak eta antzerki emanaldia izango dira, besteak beste. Horretaz gain, Kartel lehiaketara aurkeztutako lanak eta jubilatuek egindako pinturak eta eskulanak ikusgai daude datorren martitzenera arte Kultur Etxean.

*Mujika*  
geologia

**Berezitasunak:**  
Bizkotxoak  
Errelenoak  
Tostoiak

Artekaleara 3 **BERGARA** 943 76 10 34

# ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 **BERGARA**

ALEX UGALDE. Komikilaria

## "Komikia oso minoritarioa da, ez dago merkaturik"

**Arrasateko Udalak antolatutako Komiki Ez Sexisten II. Lehiaketan Gazte Saria irabazi du Alex Ugalde 25 urteko bergararrak. Sari banaketa datorren eguaztenean egingo da Arrasateko Udaletxean. Alex Ugaldek 30.000 pezetako saria jasoko du "El raton" izeneko lanarengatik. Berrigarako ohiko kolaboratzailea dugu "Tira biraka" sailean.**

**G.** Nolatan aurkeztu zinen Arrasateko lehiaketara?

**E.** Komiki hau Lizarrako beste lehiaketa batean aurkeztu nuen orain dela bi urte, baina ez zidaten saririk eman eta Arrasatekora aurkeztu nuen. Bestalde, esan behar dut, Jardunek lehen antolatzen zuen komiki lehiaketan hainbat sari jaso izan ditudala eta beste lehiaketa batzuetara ere aurkeztu izan naizela.

**G.** Marrazkia ez ezik, gidoia ere zuk zeuk egindakoa da?

**E.** Bai, normalean neuk egiten ditut bai marrazkiak eta baita gidoiak ere. Hala ere, prest nago beste batek egindako gidoiarekin lan egiteko. Niri marraztea gehiago gustatzen zait, baina gidoiak norberak lantzea ondo dago, azken finean norberak nahi duena kontatzen baitu.

**G.** Zer kontatzen duzu "El raton" komikian?

**E.** Itxura, arraza, sexua edo azalaren kolorea alde batera lagata, gizaki guztiak berdinak garela eta garrantzitsuena barrukoa dela kontatzen dut.

**G.** Komikien bitartez mezuren bat helerazi nahi diozu irakurleari?

**E.** Akziozkoak eta zientzia fikziozkoak egiten ditut, baina zerbait kontatzen saiatzen naiz komikietan.

**G.** Eta zelako komikiak egiten dituzu?

**E.** Surrealista samarrak direla eta umore beltza erabiltzen dudala esaten didate. Inguruan ikusten dudanari buruzkoak egitea gustatzen zait, baina beti ere istorioei umore puntua bilatuz. Zientzia fikziozkoak ere egiten ditut.

**G.** Zure inspirazio iturriak?

**E.** Zinea eta telebista asko gustatzen zaizkit. Telebistak dena ematen dizu, irudi jariora da, baina aitortu behar dut programazioa kaka zaharra dela.

**G.** Zelako komikiak atsegin?

**E.** Bill Sienkigwicz, Mike Mignola eta Cadelorenak batez ere. Komikiaren munduan berritzaileak izan dira, aurrekoarekin apurtzen saiatu direnak. Gasteizen erosten ditut. Egunero joaten naiz Andoainera bideo eta zine eskolara eta bidean irakurtzen ditut. Gehienbat istorio luzeak gustatzen zaizkit.

**G.** Komikia arte minoritarioa da?

**E.** Erabat. Hemen eta estatu osoan ez dago merkaturik eta oso zaila da hemendik bizimodua ateratzea. Hala ere, Espainian marrazkilaria oso onak daude.

**G.** Komikia, zinea, telebista eta skatea dira zure zaletasunik nagusiak?

**E.** Bai eta musika ere bai. Gainera, une hau aprobeztatu nahi dut Udalarik eskatzeko patinetean ibiltzeko pista egoki bat jarri dezala Kiroldegian.



Alex Ugalde, saritu dioten komikia eskuan duela.

■ salduenak / iraila

## LIBURUAK

### EUSKARAZ

1. BERANDU DA GELDITZEKO  
Unai Iturriaga. Susa
2. ENAZ BANAZ  
Xabier Amuriza. Bertsolari Elkarte
3. PUTZU  
Txillardegui. Elkar
4. ATSOTITZAK  
Gotzon Garate. Kutxa
5. HAIZEA MINDU GABE  
Jon Gaztelumendi. Susa

### ERDARAZ

1. GARZON, LA OTRA CARA  
Pepe Rei. Susa
2. TODO UN HOMBRE  
Tom Wolfe. Ediciones B
3. HIJA DE LA FORTUNA  
Isabel Allende. Arete
4. UNA MUJER DIFICIL  
John Irving. Tusquets
5. LA AMIGDALITIS DE TARZAN  
Bryce Echenique. Alfaguara

Iturria: Bilintx, Peñalba eta Zangitu

## DISKOAK

1. CALIFORNICATION  
Red Hot Chili Peppers
2. 19 DIAS Y 500 NOCHES  
Joaquin Sabina
3. TODO MANA  
Mana
4. BABY ONE MORE TIME  
Britney Spears
5. VERSION ORIGINAL  
Presuntos implicados
6. ALEXIA HAPPY  
Alexia
7. BACK ON TOP  
Van Morrison

Iturria: Bilintx eta Zaiazko

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Ustekabekoak. 2. Eragozgarri. 3. Garoa. Arrantzagunea. Nitrogenoa. 4. Eskaini eta ez eman. Elektrikoki kargatuta dauden atomoak. 5. Animalien esku edo ion. Galioa. 6. Garra. Ikutu. 7. Mila. Koordinadora Abertzale Sozialista. Interjekzioa. 8. Bokal errepikatua. Ikas eta Ari. Norat atzizkia. 9. Itzali. Bederatzi. 10. Portuak. Emakume izena.

**Goitik behera**

1. Proiektuak. 2. Erotu. Gernika-Lumoko auzoa. 3. Titiak. Interjekzioa. 4. Atzizkia. Kasik. Guraso arra. 5. ...-tak, erlojuaren hotsa. Zatiak. 6. Gaiak. Kanpo. 7. Bero-kantitatea neurtzeko unitatea. Utik! 8. Iparraldean, orain. Nazioarteko garraioetan. Bokala. 9. Ez eme. Arabako herria. 10. Egoera. Eraikin-mota.

**Soluzioa**

10. Kinka. Etxe.  
9. Ar. Agurain.  
Kalea. Uri. 8. Orat. TIR. E.  
TIR. Puskak. 6. Ekaiak. Ar.  
Ligatzen Aiti. 4. Sa. Ia. Aita.  
Eguzkiak. 2. Zoratu. Oma.  
Goitik behera  
Ezker eskuma  
Ezker eskuma. 2. Gogakarrri.  
Kale. N. 4. Tarti. Iolak.  
Atzapar. Ga. 6. Sua. Ukitu.  
M. KAS. Airei. 8. Oo. IKA. Rat.  
Ezkerrean IX. 10. Katak. Tene.

**bonofotoa**




Miguel Angel Elkoroberezibar

**Zein musikariren izena du ibiltoki honek eta ze instrumentu jotzen zuen?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

- Zenbaten adjudikatu dira A-1 autopistaren Soraluze-Maltzagako lanak?  
A- 9.025 milioi pezetan  
B- 9.833 milioi pezetan  
C- 9.048 milioi pezetan
- Nork irabazi du jubilatuen kultur hamabostaldiko kartel lehiaketa?  
A- Dani Laskurainek  
B- Juan Jose Altunak  
C- Pello Alberdiki
- Zein da BKEko futboleko ohorezko kadeteen taldeko entrenatzailea?  
A- Fernando Oregi  
B- Agustin Arbulu  
C- Pablo Gallastegi



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Albino Diaz**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Albinori! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Santissima Conzebida sin mancha de pecado original. Amen**

Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Ariel Oro**  
gargigarria 17 katilukada  
**699 PTA!**  
Super BMen beti eskaintzarik onenak!



**Oin dala sei urtetik Novedades zine aretoko proiektionistia da. Injineritza Teknikoko proiektua egitten dabil eta gainera klaseak emoten ditu Arrasateko Eskola Politeknikoan. Zaleak Xake taldiakin Gipuzkoako lehen mailan ari da.**

**Noizkua da Novedadesko proiektoria?**

Puff! Igual oin dala 30 urtekua...

**Filme bakoitza zenbat roilotan dator?**

Bi orduko filme bat sei roilotan normalean.

**Pelikulak osorik ikusi behar dituzu?**

Lehenengo proiektziñuan derrigor.

Askotan tokatzen jat filme bera lau aldiz-edo ikustia...

**Zelako arazuak izaten die?**

Askotan trailerrekin desenfoke arazuak egoten die.

**Anekdotaren bat?**

Behin hankaz gora jarri nittuan filmeko aktoriak...

**Zuri zelako pelikulak gustatzen jatzu?**

Zine europearra gustatzen jat gehixen.

Intelektualagua eta interesgarriagua dalako.

**Ikusitako filmerik onena?**

Zailla da esatia. "Algo para recordar" asko gustau jaten.

**Eta txarrena?**

Blanco humano, Van Damme-ena.

**Aktore eta aktorea bana?**

Meg Ryan eta Mel Gibson.

**Eta gustatzen ez jatzun beste bi?**

Leonardo Di Caprio eta Julia Roberts.

**Ikusle bezala, irten zara zinetik sekula**

**filmea bukatu baino lehen?**

Ez.

**Kritikiari kaso egitten jatzu?**

Bai, kontrakua egitteko.

## Javier Bizarro

**Zine aldizkari bat?**

Cinemanía.

**Areto txixixak ala haundixak?**

Haundixak nahixago.

**Ziniaz aparte, beste afiziñorik?**

Xakia.

**Zenbat urtekin ikasi ziñuan xakean jolasten?**

10 urtekin.

**Manixarik jolasteko orduan?**

Beti berdin hastia.

**Defentsa ala erasua?**

Erasua nahixago.

**Partida azkarrak ala luziak?**

Zenbat eta luziagoak hobe. Horrek partia borrokatua dala esan nahi dau eta...

**Gustoko jokalaria bat?**

Kasparov maisua da.

**Zelako musikia gustatzen jatzu?**

Techno dance musikia.

**Irakurritako azken liburua?**

Plenilunio (Muñoz Molina) irakurtzen nabil.

**Interneten ibiltzen zara?**

Bai.

**Udazkeneko gauzarik onena?**

Egun eguzkitsuak.

**Zodiako zein zeñutakoa zara?**

Tauro.



**ARDATZA**  
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 943 76 18 93

*Agirrebeña*

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

**Maiatzera arte,  
astelehenetik eguenera bitartean,  
ez dugu afaririk emango,  
jaiegunetan izan ezik.**

Barkatu eragozpenak.

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Berrero ere  
zuen zerbitzura  
denda berriztuan!



**Nerea**

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52



## Arloteak futbol taldea

Arloteak futbol taldea herriko futbol txapelketetako ohikoa da, mitikoetako bat esango genuke. Gaur egun oraindik ere aritzen da Ipintzan eta orain dela gutxira arte Labegarairetan ere bai.

Nork ez du gogoratzen hori koloreko kamiseta hura... Arloteak taldea beti ibiltzen zen aurrean Seminarioko futbol txapelketetan eta aste honetan BERRIGARAN aurkezten dizuegun argazkia Seminarioko finaletako batean ateratakoa

da, orain dela 20 urte inguru. Hona hemen berderatzikoa osatzen duten jokalarien zerrenda, ezkerretik eskumara.

**Zutik:** Jose Ignacio Franco, Luis Mari Egueren, "Pete" Etxezarreta, Jesus Elkorobarrutia eta Juan Miguel Briongos.

**Makurtuta:** Jon Ander "Poti" Larrañaga, Antonio Sanchez "Totoni", Juanjo Salamanca eta Josu Etxabe.

*Argazkia: Pedro Jose Eguren*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19



**Zumelaga**

JATETXEA

**54 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# UGARTE

## AROSZTEGIA



### ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan 1, (Barruti). BERGARA.  
Telefona eta faxa: 943 76 54 91



### TINDATEGIA RENTERI TINDATEGIA



Ikerleku 4, behea (Novedadeseko kantoia)  
943 76 19 68

Zure konfidantzazko tindategia  
Gure esperientzia eta profesionaltasun guztia zeure zerbitzura.

■ Tradizioa teknologia berrienarekin lotzen dugu.

■ Eta **denboraldi hasieran deskontuak** ditugu, narru, edredoi, manta, alfombra eta abarretan.

Antezko amerikana . . . 4.950 PTA  
Nobuk kazadora . . . . . 5.950 PTA  
Alfonbra . . . . . 895 PTA/m<sup>2</sup>

■ Eta gainera, **era guztietako** ehunezko jazkiak garbitzen ditugu.



sofa leku

a. eme... interiores



centro hogar muebles

grupo



# Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92